


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIZARTE  
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIAS SOCIALES  
Y DE LA COMUNICACIÓN

**POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA**  
2020-2021 ikasturtea

***TXIKIEN HIRU ORDEZKARI***  
***Andorra, Monako eta San Marinoko parlamentuen***  
***konparaketa***

EGILEA: Mikel J. Elizaran Mendarte  
ZUZENDARIA: Mikel Urquijo Goitia

Durango, 2021eko otsailaren 13a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciatarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

### **Laburpena**

Parlamentuak, ordezkariak politikoak gauzatu, eta gizartean dauden ikuskera eta borondate ezberdinen elkarrekintzaren bidez, erabakiak hartzeko balio duten instituzioak dira, oro har. Haien izaera eta botere maila azaltzen duten arrazoiak, historian zehar haietako bakoitzak eta haien herrialdeek bizi izan dituzten gorabeheren lotuak egon ohi dira, eta gaur egun, badira botere hedatuagoa edota izaera testimonialagoa dituztenak. Herrialdez herrialde, beraz, parlamentu eredu ezberdinak daude, eta askoren garrantzia ulertzeko, beharrezkoa da herrialde ezberdinen testuinguruetara jotzea, nahiz eta herrialde batzuk nahiko ezezagunak diren, historia luzea badute ere. Lan honen bidez, kokaleku dituzten herrialdeak ere nahiko ezezagunak diren zenbait parlamentu aztertzea da helburua; horretarako, haien egitura, funtzio eta bilakaera historikoa aztertuko direlarik, besteak beste.

**Gako-hitzak:** mikroestatu, ordezkariak ganbera, botere, bilakaera historiko, hauteskunde.

### **Abstract**

Parliaments are institutions that usually serve for political representation and decision making, through the interaction of different points of view and choices of society. The reasons that explain their nature and power, are usually linked to the historical events that occur in their environment and in the one of the countries to which they belong, and nowadays, there are those that have more power, or those that have a more testimonial nature. Therefore, the type of parliament varies from country to country, and it is necessary to know the context of each country to understand the importance of many of the parliaments, although some countries are quite unknown despite their long history. The purpose of this paper is to examine some parliaments that are located in countries that are not well known; for this purpose, their structure, function and historical evolution will be examined, among other characteristics.

**Keywords:** microstate, chamber of representatives, power, historical evolution, election.

## AURKIBIDEA

---

1. SARRERA.....	5
1.1. Aurkezpena eta justifikazioa.....	5
1.2. Helburuak .....	7
2. MARKO TEORIKOA.....	7
2.1. Bibliografiaren berrikuspena .....	7
2.2. Hipotesiak.....	13
3. METODOLOGIA.....	15
4. HERRIALDEAK ETA ESTATU FORMAK.....	17
5. ORDEZKAPEN GANBERAK.....	22
6. HAUTESKUNDEAK ETA PARTE HARTZEA.....	33
7. ONDORIOAK .....	43
GLOSARIOA .....	47
ERREFERENTZIAK.....	54
ERANSKINAK.....	66

## 1. SARRERA

---

### 1.1. Aurkezpena eta justifikazioa

Politika era ezberdinetara ulertu eta ikuspuntu ezberdinetatik aztertu daiteke, zientzia bat da batzuentzako, boterea antolatzekeo baliabide edo praktika bat besteentzako, eta ulergaitza den zerbait hangoentzako. Politika-boterea harreman horretan, hain zuzen ere, gizatalde konkretu batengan eragina izango duten erabakien egikaritzea ematen da, besteak beste. Erabaki politikoak hartzekeo gaitasunak, beraz, botere bat du oinarrian, hura aitortua edo usurpatua izan bada ere.

Erabaki mota horiek, lege gisara egiten dira publiko eta lege direlako ulertzen dira betebehar modura. Hain zuzen ere, erabakimen hori gauzatzea ahalbidetzen duen botereari, botere-legegile izena ematen diogu politika aztertzen dihardugunok. Horri jarraiki, Ganbera Legegile edo Parlamentuak, botere legegilea gauzatzen duten eta erabakiak hartzen dituzten instituzioak izaten dira askotan; Europan, esaterako, parlamentarismoak tradizio handia du eta herrialde askotan antolaketa politiko parlamentarioak egituratzen du estatuaren botere politikoa.

Antolaketa politiko horren baitan, parlamentuak, botere legegilea izateaz gaindi, gobernuak, botere betearazlea, hautatzeko eta kontrolatzeko gaitasuna ere badu. Bestalde, hiritarrek hauteskunde bidez erabakitzen ohi dutenez parlamentuaren osaera nolakoa izango den, parte hartze politiko irekia ematen delako adierazle, eta sistemari legitimotasuna aitortzen dion elementu ere bilakatzen da, hiritarren borondate eta joera politikoa ordezkaturia izan dadin ahalbidetzen baitu, haien ordezkartza politikoa gauzatzeko balio duen ganbera bilakaturia. Nire kasuan, parlamentua edo legebiltzarra, bai eta haren ingurua, unibertsitateko ikasketa prozesuan, zenbaitetan eta era erosoan landu dudana aztergai bat ere bada, prozesu horren azken urratsean lantzeko erakargarria iruditu zaidana.

Lanaren ildoak parlamentuaren egitura, gaitasun, eskumen eta osaeraren deskribapenetik garatu nahi nuen, alde batetik, baina bestetik, historiarekin harremanetan egon behar zen. Ondorioz, mikroestatu deritzen horien kasuak aztergai modura baliatzeko eta haien arteko konparaketa bat egiteko gomendioa jaso nuen. Niri, egia esan, aukera ona eta interesgarria iruditu zitzaidan, hori dela eta, tamaina handi edo estandarreko herrialdeek osatzen dituzten ohiko ereduetatik aldenduz, biztanleria zein azalerari dagokionean txikiak izateagatik nabarmentzen diren zenbait herrialdeetako parlamentuen kasuak aztertuko ditut lanaren bidez, Andorra, Monako eta San Marinokoenak, hain zuzen ere.

Lanaren ildoak mikroestatuaren kasuak guztiz ezarri aurretik, ordea, gaia pixka bat haztatu dut, harik eta eginiko hautua berresten lagundu didaten zenbait arrazoi aurkitu ditudan arte. Mikroestatuak eta haien politika, oro har, gutxi aztertu izan dira Politika Zientziaren baitan, munduko biztanleriaren ehuneko txikia osatzen dutela, guztiz subirano eta independente ez direla, edota datu falta argudiatuz baztertuak izan direlako, besteak beste (Veenendaal, 2013a: 2-4). Bestalde, Richek (2014: 2) eremu

geografiko txikiak direlako eta eragin ekonomiko eta politiko mugatuak dituztelako ere baztertu izan direla dio.

Gainera, gaiaren inguruan egin diren ikerketa eta azterketak mugatuak direla kontsideratzen duenik ere bada, besteak beste, kasu bakarrekoak direla, edota datu iturri urrietatik eratorritako datu kuantitatibo mugatuetan oinarrituak direla egotziaz (Veenendaal, 2013a: 7-9; Veenendaal eta Wolf, 2016: 277). Era berean, kontuan izan behar da mikroestatu ugaritan landa lana egitea, baliabideei dagokienean oso mugatzailea suertatu daitekela, denbora, dirua eta gaitasun linguistikoak beharrezkoak direlako (Rich, 2014: 10).

Baina egiazki, mikroestatuak eta haien politika aztertzearen alde egiten dutenek, zentzu historikoan anitzak eta aztergai modura konplexuak direla adierazteaz gaindi (Taylor, 1969: 117), haien azterketa konparatiboak aztertzaileei eskaintzen dizkien abantailak azpimarratzen dituzte:

*<<Herrialde horien inguruko argitalpen akademikoen urritasunak, aurrekari gabeko aurkikuntza original eta eraberritzaileak burutzea errazten du. Are gehiago, haien baitako arreta falta dela eta, oro har, aztertzaile kanpotarrak ondo hartuak izan daitezten eragiten du, eta aurkikuntzek gizarte inpaktu handiagoa izaten dute aztertuta izaten ari den mikroestatuan.>> (Veenendaal eta Wolf, 2016: 281)*

Are gehiago, politika konparatuaren ikuspuntutik, mikroestatu askok beste inon behatuak izan ezin daitezken instituzioak izan ditzaketela aipatzen du Geserrek (1992: 635; hemen aipatua: Veenendaal eta Wolf, 2016: 283). Ildo berean, Veenendaalek zera dio, Andorra, Liechtenstein, Monako eta San Marinoren harira:

*<<Lau herrialdeetako sistema politikoek zenbait elementu idiosinkratiko dituzte, eta baita beste inon ikus ezin daitezken instituzio politiko bakarrak ere. Egungo zenbait egitura instituzional, oso ohikoak ziren European Erdi Aro eta Berpizkundean, baina nazionalismo, liberalizazio politiko eta demokratizazioa, bai eta estatu-nazio handien sorrera zela eta, desagertu egin ziren.>> (Veenendaal, 2020: 150-151)*

Hori ere interesgarria iruditu zait, izan ere, egun hiritarren borondatearen adierazpeneko ganberen botere zabala ikustea, oro har, ohikoa da; eta mikroestatuetakoko instituzio idiosinkratiko horien kasuan, baliteke, azken horien oinarria tradizioan egotea, hiritarren borondatearen adierazpenaren hauteman modernoan baino, eta beraz, azken horri mugak jartzea.

Bukatzeko, Andorra, Monako eta San Marinoren aukeraketa ez da zorizkoa izan. Andorrrak batez ere, jakin-mina eragiten zidan; Monako eta San Marinoko hizkuntza ofizialak, hurrenez hurren, frantsesa eta italiara izateak eraman nau haiek hautatzera. Frantsesa eta italiara hizkuntza latindarrak direnez, eta informazio iturriak hizkuntza horietan egongo direlakoan, horiekin lan egitea errazago egingo zaidala iruditzen baitzait.

## **1.2. Helburuak**

Lan honen bidez, beraz, Andorra, Monako eta San Marinoko parlamentuek instituzio modura duten eta izan duten garrantzia zein den aztertu eta konparatu nahi dut. Garrantziaz ari naizenean, herrialdeak boterea antolatzeke duen tradizioa eta egungo modua kontuan hartuta, parlamentuak egun duen botere eta gaitasun mailaz ari naiz alde batetik, eta bestetik, hiritarrek ordezkapen ganberaz instituzio modura egiten duten balorazioaz ere, zeina, haien parte hartzearen bidez adierazten duten.

Helburu nagusi hori betetzeko, zenbait azpi-helburu betetzea beharrezkoa iruditzen zait. Hasteko, beharrezko ikusten dut herrialdearen sorrera eta bilakaera historikoa deskribatzea, horrek, herrialdearen bilakaeran boterea antolatzeke egon den joera ezartzen eta egun dagoena ulertzen lagunduko didalako. Bigarren, parlamentuen beren sorrera eta bilakaera historikoa deskribatzeke ere beharrezko deritzot, izan ere, ganberak zehazki izan duten botere eta eskumen sortaren bilakaera ezartzen eta egun dituztenen zergatia ulertzen lagunduko dit.

Parlamentuak, bestalde, hiritarren borondate eta joera politikoaren ordezkapen eta adierazpenerako instituzioak ere izaten dira. Zentzu horretan, beharrezkoa iruditzen zait Andorra, Monako eta San Marinoko hiritarrek ganbera ezberdinekiko historian zehar izan duten harremana eta egun dutena deskribatzea. Hartara, bete nahi dudana hirugarren azpi-helburua, parlamentuen eraketa edo aukeraketa sistema eta baldintzen bilakaera eta egungo hauteskunde sistema deskribatzea da. Horri jarraiki, bete nahi dudana azken azpi-helburua, azken urteetako hauteskunde parte hartzea eta hauteskunde sistemak ordezkartzan izan dituen eraginak deskribatzea da.

Aipaturiko helburuak erdietsi eta hautaturiko aztergaia landu nahian, honako egitura eman diot lanari. Lehenik, sarrera hau, arrazoi eta helburuak azalduaz; marko teoriko bat, aztergaiaren aurrekariak azalduaz eta hipotesiak agertuaz; eta, metodologia azaltzeko atal bat garatuko ditut. Ondorengo atal analitikoetan, hautaturiko herrialdeen zenbait ezaugarri azalduko ditut, aurrez aipaturiko helburu eta azpi-helburuak lortzeko beharrezkoak direnak. Azkenik, atera ditudan ondorioak azalduko ditut, haien atzetik, lanean zehar aipatuko diren zenbait kontzeptu biltzen dituen glosario bat, eta, baliatu ditudan bibliografia eta eranskinak zerrenda utziko ditut eskuragarri.

## **2. MARKO TEORIKOA**

---

### **2.1. Bibliografiaren berrikuspena**

Lanaren eduki analitikoak garatzen hasi aurretik, marko teoriko bat osatuko dut, aztertuko dudana gaiaren egoera akademiko eta analitikoak zein den ezarri nahian, gaiaren inguruan garatu den bibliografiaren berrikusketa bat eginaz, eta iturri ezberdinetako informazioa bilduaz. Marko teorikoa garatzeko erabiliko dudana informazio gehiena, artikulua akademikoetatik eratorria izango da; horiek, bestek

beste, Google Scholar, Researchgate, Tandfonline edota Academia web-atarietan buruturiko bilaketen bidez eskuratu ditudalarik, gehien bat.

Mikroestatuaren eta haien egitura politikoen azterketa burutu duten ikertzaile gehienek, estatuaren tamaina eta demokraziaren arteko harremana jorratzen duen eztabaida akademikoan izan dute oinarri garrantzitsua. Zentzu horretan, mikroestatuak landu dituzten ikertzaile askoren oinarri teorikoan, Robert Dahl, Edward Tufte eta Dana Otten gisako ikertzaileek buruturiko lanen erreferentziak nabarmentzen dira.

Mikroestatuaren eta haien egitura politikoen azterketari buruz burutu dutan berrikuspen bibliografikoan, berriz, Dag Anckar eta Wouter Veenendaal unibertsitate-ikertzaileek pisu garrantzitsua izan dute beste zenbait egileren artean, biek ere, mikroestatuaren politikari loturiko zenbait gai aztertu baitituzte, artean, herrialdeen tamaina txikiak jardun-politikoan duen eragina eta haren arazoak, edota, mikroestatuak sistema politikoa egituratzeko orduan jarraitu duten ereduak.<sup>1</sup>

Aipatu bezala, tamaina eta demokraziaren arteko harremana jorratzen duten lanak izan dira mikroestatuaren azterketan jardun duten zenbait ikertzailearen oinarri; zenbait izan baitira, lan horietan, estatu txikiaren eta estatu handietako politikaren arteko ezberdintasuna aipatu dutenak. Dahl eta Tufte (1973: 40-108; hemen aipatua: Veenendaal, 2013a: 33-34), esaterako, estatu handietan dagoen gizarte talde eta antolakundearen aniztasunak, haien politika konplexuago bilakatzen duela diote, gizarte txikiaren, gehiengoaren iritzien aurka egin eta aliatuak bilatzea zailagoa dela, eta horrek gutxiengoaren parte hartzea zailtzen duela ezarriaz.<sup>2</sup>

Eztabaida beraren baitan, estatu txikiaren eta demokrazia maila altuaren arteko harreman estatistikoa azpimarratu dutenak ere badaude (Diamond eta Tsai, 1999: 117-119; Ott, 2000: 120; hemen aipatua, Veenendaal, 2013a: 1, 4, 36-37), herrialde txikiaren gobernu sistema, herrialde handienaren aldean, demokratikoagoa dela ezarriaz, esaterako; edota, estatu txikiak demokratiko mantentzeko estatu handiek baino joera handiagoa dutelako baieztatuz.<sup>3</sup>

Gerring eta Zareckik (2012: 3), aldiz, biztanleriak gora egiten duen heinean, demokrazia mailak ere gora egiten duela diote, demokraziaren ikuskera “schumpeterarraren”

---

<sup>1</sup> Nire kasuan, baliabide falta zela eta, lan horiengan oinarritu nahiz, gehien bat, marko teorikoa osatzeko, gainontzeko egileen aipu gehientsuenak ere haiengandik eratorriko ditudalarik, besteak beste, estatuaren tamaina eta demokraziaren arteko harremana jorratzen duen eztabaidari loturiko egile batzuenak.

<sup>2</sup> Ondorio horretara iristeko, hiritarrek sistema politikoko parte hartzeko dituzten aukeren eta estatuak hiritarren eskakizunei erantzuteko duen gaitasunaren arteko konpentsazioa oinarri hartuta, eraginkortasun sententzia, parte hartzea, talde politikoen arteko ezberdintasuna eta hiritar-politikari komunikazioa aztertzen dituzte Dahl eta Tufte (1973: 23-108; hemen aipatua: Veenendaal, 2013a: 33-34), zenbait estaturen kasuetan.

<sup>3</sup> Estatu txikiak demokratiko bilakatzea estatu handiek baino errazago dutelako hipotesia frogatu nahian, neurri estatistikoa aztertuz eta erregresio analisi batekin horiek berretsiz, eta bestalde, Gambia eta Trinidad eta Tobagoko kasuak aztertuz garatzen duen lan batean ezartzen du Otte (2000; hemen aipatua: Veenendaal, 2013a: 36-37) azken hori.



arabera.<sup>4</sup> Haien hitzetan, herrialde txikietan koordinazio handiagoa dagoelakoa eta horrek demokrasiaren finkatzea errazten duelakoa, ezinbesteko baldintza bati lotua dago, boterea dutenek hura partekatu nahi izatearen baldintzari, hain zuzen ere (ibid. 4).<sup>5</sup>

Dahl eta Tuftek konplexu deritzoten horri, honako baliagarritasuna ikusten diote:

*<<Errazagoa da alderdi anitzeko hauteskunde lehiaren bidez botere eskurapena mugatzea, bai eta horretarako konstituzio-mugak ezartzea. Gainera, biztanleria handiago batek zenbait muga ezartzen dizkie boterea monopolizatu nahi duten liderrei.>> (Gerring eta Zarecki, 2012: 15)*

Baina era berean, politika baten edo politikagintzaren eragin eremua handitzeak, hiritarren parte hartzeari, eraginkortasun sentimenduei, eta agian, demokrasiaren beste zenbait dimentsiori ondorio ezkorrak eragin diezazkiekela onartzen dute, Gerring eta Zareckik (2012: 15). Eztabaida horren ildoan, ordea, ez dira zehazki mikroestatuak jorratzen, are gehiago, Veenendaalen (2013a: 34) hitzetan, Dahl eta Tufteren lana, esaterako, zalantzarria izan daiteke, Herbehereak, Suedia edota Austriaren gisako estatuak txikitat hartuaz aztertzen baitituzte.

Izan ere, “mikroestatu” kontzeptuak ez du definizio zehatzik (Rich, 2014: 2), eta, nahiz eta horiek identifikatzeko modu asko egon, estatu bat mikroestatu kontsideratzeko unean aldagai bakarra erabiltzeak, norbanakoen ebazpen arbitrarioek hautuarengan pisu handiagoa izatea ahalbidetzen du (Taylor, 1969: 116-117).<sup>6</sup> Askotan, mikroestatuak, millioi bat biztanle baino gutxiago edo 1000 kilometro karratu baino gutxiago dituzten estatu modura definitzen dira (Anckar, 2002; 2004; 2008a; 2008b), bibliografiaren berrikuspenean, egiazki biztanleria eta azalera urriak dituzten estatuen azterketak agertu izan zaizkit mikroestatuaren inguruko azterketa modura.

Biztanleria txiki edo urriari loturiko gizarte ezaugarri batek, homogeneousotasunak, mikroestatuetan presentzia handia duela ezarri izan du Richardsek (1990: 41).<sup>7</sup> Anckarrek (2002: 34-39) ere, arreta esanguratsua eskaintzen dio mikroestatuetan egon daitekeen gizarte homogeneousotasuna aztertzeari; homogeneousotasun kategorikoa, zeina

---

<sup>4</sup> Demokrasiaren muga orokorren barnean, Gerring eta Zareckiren (2012: 3) ildoan haren dimentsio liberaletan oinarritzen da; zeintzuen arabera, demokrazia, lidergo taldeen arteko hauteskunde-lehia eta boterea gauzatzeko konstituzio-mugen bidez gauzatzen den. Horri, ikusmolde “schumpeterterra” deritzote.

<sup>5</sup> Gainera, mikroestatueta jotzen dute Gerring eta Zareckik (2012: 4), horietan, kargu politikoak dakarren ardura beregan hartzeko prestatua dagoen jende gutxiago dagoela esateko.

<sup>6</sup> Richardsek (1990: 40), esaterako, Nazio Batuen Idazkaritza Orokorraren (1967: 164) definiziora jotzen du, zeinaren arabera, mikroestatuak, lurralde, biztanleria, eta giza bai eta ekonomia baliabideetan zeharo urri edo txikiak diren, eta estatu berri modura sortzen ari diren.

<sup>7</sup> <<...estatu txikian, litekeena da onespenean eta homogeneousotasuna bultzatzeko presioak, komunitate integratu bakarrarekiko leialtasun ideiarekiko lagungarri izatea. (...) Aldiz, estatu ere badiren gizarte txikiek, lehenik, gizarte homogeneousotasun handiago bat dute, eta bigarrenik, instituzio eta jardun bateratuen bidez kanpotarren aurrean fronte bateratu bat aurkezteko beharra ere bai.>> (Richards, 1990: 42-44)

mikroestaturik mikroestatu aldakorra den, eta jarrera homogeneotasuna, mikroestatu ia gehienetan egonkorra dena, bereizten dituelarik.<sup>8</sup>

Veenendaal (2020: 156-157), bere aldetik, kohesioaz aritzen da, Andorra, Monako eta San Marinoren (eta Liechtensteinen) kasuan, gizarte kohesionatu eta elkarlotu bat dagoela esanaz, zeina, hiritarren eta politikarien arteko harreman pertsonalen plaza ere baden. Suttonek (2007; hemen aipatua: Veenendaal, 2020: 161), bere aldetik, harmonia politiko adostu baterako joera aipatzen du, herrialdeen tamaina txikia eta kanpotarren presentzia ugaria dela eta.

Dena den, Anckarrek mikroestatuetakoz gizarte homogeneotasuna eta haren eraginetakoz bat definitzerakoan baliatzen duen ildoak interesgarria da lan honekiko:

*<<Alde batetik, (...) herritarren zati handiago bat lotzen zaielako kode bakar eta oinarritzko elkartasunei, eta beraz, mikroestatuak portaera patroiz bakarrei moldatuko zaizkiela espero daiteke, zeintzuk, gehiengoaren ikuspuntua babestuko duten, haien meneko bilakatuz. Bestalde, txikiak izaki, gerta daiteke talde gatazkek komunitateak polarizatzea, hori kontuan hartuz, litekeena da mikroestatuak kontsentsuan oinarrituriko erakunde politikoekiko ikuskera eta jarrera politikoak eskaintzea.>>*  
(Anckar, 2008a: 69)

Alegia, gizarte homogeneotasuna zein zentzutan ematen den deskribatuz, horrek, politikan eta sistema politikoan eragina izan dezakela planteatzen da. Are gehiago, mikroestatuetakoz sistema politikoa, oro har, gehiengo demokraziak ardatzen duela ezartzen du Anckarrek (2008a: 81-83). Andorra, Monako eta San Marinoren kasuan, bere aldetik, oro har, gehiengo demokraziaren ezaugarrietara bideratzen den joera ezartzen du Anckarrek (ibid. 72-75), lurralde antolaketa, erregimen mota, hauteskunde sistema, ganberen egitura, kuota parlamentario eta konstituzio emendakinen prozedurari erreparatuta, nahiz eta ezaugarri guztietan ez den gehiengoaren printzipioa gailentzen.<sup>9</sup>

Sailkapen horretan, aztertzen dituen ezaugarri ezberdinek hartzen duten joeraren arabera kokatzen ditu Anckarrek (2008a: 72-75), gehiengo demokrazian, kontsentsu demokrazian edo tarteko kategorian. Datu horiengan oinarrituta, 1. taulak, Andorra, Monako eta San Marinoa, aztertutako ezaugarriek duten joera, eta haren arabera, Anckarrek esleitzen dien kategoria agertzen ditu:

---

<sup>8</sup> Dahl eta Tufteren (1973: 30; hemen aipatua: Anckar, 2002: 34) bereizketara joaz proposatzen ditu, homogeneotasun kategorikoa, interes, nahi, lehentasun eta helburuak aldarrikatzen dituzten taldeen kopuruari lotua, eta jarrera homogeneotasuna, gizartean egon daitezken jarrera politiko eta instituzioekiko jarrera anitzei lotua.

<sup>9</sup> Lijpharten (1989: 34; hemen aipatua: Anckar, 2008a: 71) irizpidea baliatzen du, gehiengo eta kontsentsu demokraziaren artean bereizteko, zeinaren arabera: <<...ahalik eta botere gehien gehiengoaren eskuetan kontzentratzearen printzipioa, edo, boterea era askotara elkar-banatzeko, barreiatze eta mugatzearen printzipioa hartu daitezkeen oinarri...>> Anckarrek, horri jarraiki, hiru kategoria bereizten ditu bere azterketan herrialdeak sailkatzeko orduan, gehiengo demokraziarena, kontsentsu demokraziarena eta tartekoa.

1. taula: herrialdeen sistema politikoaren ezaugarriak eta Anckarren sailkapena

Ezaugarria	ANDORRA		MONAKO		SAN MARINO	
	Garatzeko joera	Anckarren sailkapena	Garatzeko joera	Anckarren sailkapena	Garatzeko joera	Anckarren sailkapena
Lurralde antolaketa	Unitarioa	Gehiengo dem.	Unitarioa	Gehiengo dem.	Unitario deszentralizatua	Tartekoa
Erregimen mota	Erdi-presidentialista	Tartekoa	Erdi-presidentialista	Tartekoa	Parlamentarioa	Gehiengo dem.
Hauteskunde sistema	Gehiengo. eta propor. konb.	Tartekoa	Gehiengo. eta propor. konb.	Tartekoa	Gehiengo sist.	Gehiengo dem.
Ganberen egitura	Ganbera bakarra	Gehiengo dem.	Ganbera bakarra	Gehiengo dem.	Ganbera bakarra	Gehiengo dem.
Kuota parlamentarioak	Ez dira erabiltzen	Gehiengo dem.	Ez dira erabiltzen	Gehiengo dem.	Ez dira erabiltzen	Gehiengo dem.
Konst. emendakin prozedura	2/3 par. (+ 2/3 erref.)	Tartekoa	2/3 par. (+ 2/3 erref.)	Tartekoa	2/3 par. (+ 2/3 erref.)	Tartekoa

Iturria: lanketa propioa. Datuen iturria: Anckar, D. (2008a). "Microstate Democracy: Majority or Consensus; Diffusion or Problem-Solving?". *Democratization*, 15 (1), 67-85.

Beraz, hiru herrialdeetako sistema politikoek zenbait ezaugarri bateratu dituztela esan daiteke, besteak beste, ganberen egitura, kuota parlamentario eta konstituzio emendakinen prozedurari dagokionean, zeintzuen artean, lehen biak gehiengo demokraziaren kategorian, eta azkena tartekoan, ezartzen dituen Anckarrek (2008a: 74-75). Bestalde, herrialde bakoitza kontuan hartuta, San Marinoren ezaugarri gehiago hurbiltzen dira gehiengo demokraziara, Andorra eta Monakorenak baino azken bi horiek, ezaugarri guztietan luketelarik joera beta Anckarren (ibid. 74-75) aburuz.

Monarkiak, bere aldetik, esangura du mikroestatuetakoko sistema politikoetako eragile modura, izan ere, kasu askotan, mikroestatuetakoko errege edo printzeek botere handia metatu baitute.<sup>10</sup> Veenendaalek (2016: 183-184), hiru kategoria bereizten ditu, mikroestatuetakoko monarken artean, posizio testimoniala dutenak, agintari autoritarioak, eta, ohiko monarkia konstituzional batean baino botere gehiago, baina herrialde autoritarioetan baino gutxiago duten monarkak.<sup>11</sup>

Mikroestatu askoren kasuan, monarkia nortasun nazionalari oso lotua egon daitekeela ezartzen du Veenendaalek (2016: 195). Horren arrazoi modura, monarkia hura herrialdearen sorrera sustatu zuena izan zelakoa, eta oro har mikroestatuetakoko joera politikoaren izaera kontserbadorea agertzen ditu; horiek tarteko, monarkiaren aurka agertzea edo hura erreformatu nahi izatea, herrialdearen eta haren oinarrizko balio eta subiranotasunaren aurka agertzea bailiran uler daitezkelako (ibid. 190-192). Zenbaitentzat, beraz, Monakoko (eta Liechtensteineko) erregeak duen botere posizioa anbigua da (Marxer, 2007; Veenendaal, 2014; Wolf, 2015; hemen aipatuak:

<sup>10</sup> Gainera, munduan bi milioi biztanle baino gutxiago dituzten herrialdeen artean, %24ak du monarka bat estatu-buru, estatu txiki eta handiak alderatuz, lehenek sistema monarkiko gehiago dituztelarik, nahiz eta horiek ere anitzagoak izan (Veenendaal, 2016: 183).

<sup>11</sup> Schedlerrek (2010; hemen aipatua: Veenendaal, 2016: 184), monarkia erdi-konstituzional izena eman die, zenbaitetan, hirugarren talde horretan kokatzen diren herrialdeei.

Veenendaal, 2020: 156), herrialdeen izaeraren sailkapenerako zailtasunak eragiten baititu.<sup>12</sup>

Mikroestatuetakoa sistema politikoen ezaugarri estrukturalen azterketaz gandi, tamaina eta demokraziaren eztabaidaren ildoari helduaz, eta, mikroestatuaren eta demokraziaren arteko korrelazioan abiatuz, mikroestatuak demokratiko diren frogatzea helburu duten azterketak garatu dituztenak ere badira (Anckar, 2008b; Veenendaal, 2013a; 2013b; 2013c). Izan ere, hainbat lanek, mikroestatueta demokrazia garatzeko eta egonkortzeko dauden zenbait baldintza aipatzen dituzte.

Iturri estatistiko edo kuantitatiboei dagokienean, aipaturiko ikerketa ugari (Anckar, 2002; 2004; 2008a; 2008b; Diamond eta Tsalik, 1999; Gerring eta Zarecki, 2012; Ott, 2000; Rich, 2014; Veenendaal, 2013a; 2013b; 2013c; 2020), Freedom House etxearen datuetara jotzen dute, azken horrek mikroestatu ugari ezartzen baititu “aske” deritzon kategorian.<sup>13</sup> Hain zuzen ere, Anckarrek (2008b: 76-78), Freedom Housek eskaintzen dituen askatasun ratioetara jotzen du, mikroestatuak demokratiko diren frogatzeko burutzen duen azterketan:

**2. taula: mikroestatu demokratiko eta ez demokratikoen bilakaera**

Denbora tarte	Bataz besteko mikroestatu kopurua	Bataz besteko mikroestatu demokratikoak/ez demokratikoak	Bataz besteko mikroestatu ez demokratikoen %
1974-76	33	13/19	59
1984-86	38	17/21	56
1994-96	42	28/14	33
2004-06	41	29/13	31

Iturria: lanketa propioa. Datuen iturria: Anckar, D. (2008b). “Microstate Democracy Revisited: Developments in Time and Space”. *The Open Political Science Journal*, 1, 75–83.

2. taulak, hain zuzen ere, mikroestatuaren demokratizazioarako joera erakusteko balio du, izan ere, denbora-tarte ezberdinetako Freedom Housen askatasun ratioei erreparatu, Anckarrek (2008b: 78), mende hasieran, bataz beste, munduko mikroestatuaren %31 soilik ezartzen ditu ez-demokratiko kategorian, aurreko denbora-tarteetako datuekin alderatuz, kopuru txikiena izanik. Gainera, 1976an, mikroestatuaren %41 demokratikoak ziren heinean, estatu handien %23 soilik zegoen egoera berean; eta egoera ez zen asko

<sup>12</sup> Hain zuzen ere, Andorra eta San Marinoko instituzioak demokraziarekin guztiz bateragarriak diren heinean, Liechtenstein eta Monakoko monarkien posizioak, oraindik ere eztabaida sortzen du (Veenendaal, 2020: 159).

<sup>13</sup> <<Freedom House etxeak, pertsonen eskubide politiko eta askatasun zibilekiko duten irisgarritasuna neurtzen du 210 herrialde eta lurraldetan, “Freedom in the World”, urtez urteko txostenaren bidez.>> (Freedom House, 2020) Bozka-eskubidea, adierazpen-askatasuna eta legearen aurreko berdintasuna bezalakoak erreparatzen die, Freedom House etxeak, bere azterketak burutu eta ondorioak ezartzeko orduan.

aldatu 1986an, mikroestatuaren %46 eta estatu-handien %30 kontsideratzen zirelarik demokratiko (Anckar, 2008b: 78).<sup>14</sup>

Hiritarren erantzunari dagokionean, hauteskunde parte hartzea da hura neurtzeko hoberena den datua, ia kasu guztietan dagoelako eskuragarri, eta herrialdeen arteko konparaketak egitea errazten duelako (Veenendaal, 2013a: 66). Blais eta Dobryznaskak (1998; hemen aipatua: Rich, 2014: 6), esaterako, unitate txikietako bozketa, handietakoa baino altuagoa dela ezartzen dute; era berean, Richardsek (1990: 42), Dahl eta Tufterengana (1973) jotzen du, estatu txikien sistemek hiritarrei erabakien gauzatze eraginkorrean parte hartzeko aukera gehiago eskaintzen dizkietelako ideiarri heltzeko.<sup>15</sup>

Edota, arestian Veenendaalen bidez aipaturiko hiritar eta politikarien arteko gertutasunaren ildoari jarraiki, horrek, hiritarren parte hartzea sustatzen duen gizarte ez hierarkiko bat ahalbidetzen duela dioenik ere bada (Baldersheim eta Keating, 2015; Thorhallsson, 2019; hemen aipatuak: Veenendaal, 2020: 157). Bukatzeko:

*<<Tamaina txikiari ikusten zaizkion bestelako eragin baikorrako batzuei dagokienean, ez dirudi, adibidez, hiritarren kontzientzia eta eraginkortasun sentimendu hobetuak, edota, komunikaziorako eta erantzuteko gaitasun handiagoak literaturan giltzarri modura agertzen direnik.>>* (Veenendaal, 2013a: 65)

## 2.2. Hipotesiak

Aztertutako bibliografian mikroestatuaren politikaren zenbait ezaugarri deskribatzen dira. Tamaina eta demokraziaren arteko harremana, mikroestatuaren definizioa, homogeneotasuna, sistema politikoaren ezaugarriak, demokrazia maila edota parte hartzearen gisako kontzeptuek mikroestatuaren azterketan izan dituzten nondik norakoen bidez, garatu nahi dudana lanean frogatu edo ezeztatzea espero dudana zenbait hipotesi formulatzera heldu naiz.

- H.1. Andorra, Monako eta San Marinon, estatu formak, parlamentuaren botere maila eta eskumenengan eragina du.
  - H.1.1. Estatu burua monarka bat den kasuetan, parlamentuak botere gutxiago eta eskumen mugatuagoak izango ditu.
  - H.1.2. Estatu burua presidente bat den kasuetan, parlamentuak botere gehiago eta eskumen zabalagoak izango du.

Landuriko iturrietan zehar, mikroestatuaren gizarteko gehiengoaren aurka egiteko aliatuak bilatzea zaila dela aipatu dut, besteak beste.<sup>16</sup> Gainera, iraganetik indarrean diharduten eta historiaren oinordeko diren instituzioek, mikroestatuak, aztertzeko

---

<sup>14</sup> Hain zuzen ere, azken adierazpen horrek, Anckarren ondorio izango denari atea irekitzen dio: *<<...ikerketa honek, bere aldetik, estatu txikiak, handiekin alderatuz, demokratikoagoak direlako ideiarri egin dio ekarpena.>>* (Anckar, 2008b: 81)

<sup>15</sup> Bakerrek (1992; hemen aipatua: Rich, 2014: 6), ildo horri jarraiki, halako kasuetan, banako bozka batek erabakigarri bilatzeko gaitasun handiagoa duela aipatzen du.

<sup>16</sup> Besteak beste, monarkiaren aurkako adierazpenak ez-legitimo kontsidera daitezkelako ideia ere aipatu dut.

erakargarri bilakatzen dituelako ideia ere aipatu dut. Bukatzeko, nortasun nazionalaren adierazle direlako baldintzaren ondorio duten europar mikroestatueta monarken posizio anbigua, eta ondorioz, herrialdeak demokratikoak diren edo ez ezartzeko zailtasunak ere aipatu dira.

Zentzu horretan, aztertuko ditudan herrialdeen artean, monarkiak direnen kasuan, estatu-buruak oraindik ere botere subirano ugari izan ditzakela, eta subiranotasun metaketa hori, hiritarren mugatuaz lortua izango dela iruditzen zait. Eta beraz, hiritarren ordezkapenerako ganberak botere edo eskumen gutxiago izango dutelako irudipenetik planteatzen dut hipotesia.

- H.2. Andorra, Monako eta San Marinon, parlamentuaren botere mailak eta eskumenek, hiritarren parte hartzean eragina dute.
  - H.2.1. Parlamentuak botere gehiago eta eskumen zabalagoak dituen mikroestatueta, hauteskunde parte hartzea altuagoa izango da.
  - H.2.2. Parlamentuak botere gutxiago eta eskumen mugatuagoak dituen mikroestatueta, hauteskunde parte hartzea baxuagoa izango da.

Parte hartzea denboran zehar eta herrialdez herrialde aldatu edo mantendu den frogatu nahian planteatzen dut hipotesia. Izan ere, iruditzen zait, sistema politiko batek hiritarren borondatea barneratzeko eta kontuan hartzeko duen moduaren arabera hiritarren erantzuna aldatu egingo dela. Bestalde, hiru herrialdeen bilakaera ezberdina izan denez, hiritarrek borondatearen barneratze horrekiko duten hautemana ere ezberdina izan daitekela iruditzen zait.

- H.3. Andorra, Monako eta San Marinon, parlamentuaren botere mailak eta eskumenek, hauteskunde sistemaren izaeran eragina dute.
  - H.3.1. Parlamentuak botere gutxiago eta eskumen mugatuagoak dituen mikroestatueta, hauteskunde sistema irekiagoa izango da.
  - H.3.2. Parlamentuak botere gehiago eta eskumen zabalagoak dituen mikroestatueta, hauteskunde sistema murriztaileagoa izango da.

Sistema politikoen ezaugarriei dagokienean, gehiengo demokraziara bideratzen den joerak pisu handia duela argi geratu da hiru kasuetan ere. Nire ustez, mikroestatueta diseinu instituzionalean, sistema politikoaren egonkortasuna era ezberdinetara ulertu izan da, nahiz eta betiere botere orekaren ustezko borondatetik, askotan, ez da inolaz ere harekin eman. Horregatik, hiritarren borondatearen adierazpenari dagokionean, nolabait, hura lausoa edo mugatua izan zedin bilatzen zela iruditzen zait.

Hartara, hiritarren ordezkapen politikorako ganberak zentraltasun handiagoa badu sistema instituzionalean, haren parte izatera iristeko joko arauak eta haien eraginak zorrotzagoak izango direlakoan nago.<sup>17</sup> Bestalde, hiritarren borondate politikoaren adierazpenerako ganberak zentraltasun txikiagoa badu sistema instituzionalean, haren

---

<sup>17</sup> Zentzu horretan, hauteskunde sistema murriztailezat ulertzen dut, esaterako, hautagai izateko baldintza zorrotzagoak, edota, hauteskunde langa altua izan dezakeen hura, bai eta, ordezkariaren esleipenaren emaitza eta bozka zenbaketaen arteko harreman desorekatua eragiten duena.

parte izatera iristeko joko arauak eta haien eraginak leunagoak izango direlakoan nago.<sup>18</sup>

### **3. METODOLOGIA**

---

Azken lerroetan azalduko hipotesiak frogatu eta lanaren bidez lortu nahi ditudan helburuak erdiesteko aztertu eta landuko ditudan edukiak azalduko ditut atal honetan, bai eta horiek lantzeko baliatuko ditudan iturriak.

Lehenik eta behin, herrialdeen sorrera eta bilakaera historikoaren zertzelada batzuk azalduko ditut; estatu-formaren bilakaerari ere erreparatuaz, haren jatorria eta egungo egoera deskribatuz. Bestalde, egun, estatu-buruak dituen eskumenak eta ordezkapen ganberarekiko harremana azalduko dut. Horretarako legeak, Konstituzioak, artikulua, eta herrialdeen web-orrietan dauden dokumentu edo azalpenak baliatuko ditut.

Ondoren, herrialde bakoitzeko ganbera deskribatuko dut, haren sorrera eta bilakaera historikoaz gaindi, hark egun duen izaera zein den eta zertan oinarritzen den deskribatuz. Bestalde, egun dituen eskumenak eta botere exekutiboarekiko duen harremana azalduko ditut. Horretarako, aurreko paragrafoan aipaturiko iturriez gaindi, ganbera edo parlamentuen web-orriak eta horietan eskaintzen diren azalpenak ere baliatuko ditut.

Hurrengo, herrialde bakoitzean ganberaren osaera erabakitze sistemak eta parte hartzeko baldintzek izan duten historia eta azken urteetan indarrean egon den hauteskunde sistema deskribatuko ditut. Gainera, azken horrek ganberaren osaeran izan duen eraginari ere erreparatuko diot; bai eta, hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaitza kopuruaren eta hauteskunde parte hartzearen datuei. Guzti horretarako, parlamentuen web-orriak, herrialdeetako gobernuenak eta aldizkari ofizialak izango dira, oro har, nire informazio iturriak, gainera, honakoan hauteskunde-legeak ere erabiliko ditut.

Azken paragrafoan azalduko azterketak burutzeko, 2003-2018 urteen arteko datuak soilik aztertuko ditut. Kontuan izan behar da, Monakon indarrean dagoen hauteskunde-sistema, 2003an burutu zen erreforma baten ondoriozkoa dela; San Marinon, bestalde, 2007, 2008 eta 2016 urteetan hauteskunde legearen erreformak burutu baziren ere, horiek ez zuten hauteskunde sistemaren oinarritzko ezaugarrietan aldaketa sakonik burutu, harik eta, 2019an beste behin erreformatu zen arte.<sup>19</sup>

Denbora tarte hori finkatu izanaren beste arrazoietakoa bat, datuen eskuragarritasuna izan da, denbora tarte horretan hiru herrialdeetan burutu izan ziren launa

---

<sup>18</sup> Zentzu horretan, hauteskunde sistema irekitzat ulertzen dut, esaterako, hautagai izateko baldintza malguagoak dituen, edota, hauteskunde langa baxua izan dezakeen hura, bai eta, ordezkariaren esleipenaren emaitza eta bozka zenbaketaren arteko harreman orekatua eragiten duena.

<sup>19</sup> Gerora sakonduko dudak bezala, hautagaitzak aurkezteko baldintzak zertxobait aldatu ziren, eta bozken kontaktan hautagaitza edo koalizio garailea izendatu eta egonkortasun ordezkariak ezartzeko prozedura bat txertatu zitzaion.

hauteskunde emaitzen datuak lortu ahal izan ditut, 2003tik atzeragokoak lortzea zaila izan zaidalarik.<sup>20</sup>

Hauteskunde sistemak ganberen osaeran izan duen eragina aztertzeko zenbait indizetatik eratorzen den informazioa erabiliko dut, horien bidez, hauteskunde emaitzen proportzionaltasunak, kontzentrazioak eta alderdi aniztasun edo homogeneotasunak ganberan duten isla ezarriz.

- Gallagherren proportzionaltasun indizeak, bozka eta eserleku portzentajeen arteko desbideratzea neurtzen du, desproportzionaltasun balio baten bidez, zeina, ahalik eta proportzionalen izateko, Otik ahalik eta gertuen egon behar den.
- Murrizketa portzentajeak, balizko jotako bozken guztizko kopurua hartzen du kontuan, ordezkariak erdietsi gabe geratu diren bozkek, guztizko bozkengan duten pisua adieraziz; beraz, ehunekoaren balioa zenbat eta txikiagoa izan, hauteskunde emaitzaren eta ordezkari esleipenaren arteko harreman orekatuagoa.
- Hauteskunde zatiketak (HZ) eta hauteskunde alderdien kopuru eraginkorrak (HAKE), hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaitzek eta zerrendek lorturiko emaitzen arabera alderdien aniztasun edo homogeneotasun egoera neurtzen dute.
- Zatiketa parlamentarioak (ZP) eta alderdi parlamentarioen kopuru eraginkorrak (APKE), ordezkariak lortu duten hautagaitzen emaitzak kontuan hartuta, ganberan alderdi-aniztasun edo homogeneotasun egoera bera islatzen den adierazten dute.

HZ eta ZPren balioa 0 eta 1 artekoa izango da, alderdi aniztasuna adieraz dezan, 0,6ak ezartzen duen langa gainditu beharko duelarik. HAKE eta APKEk, bestalde, zenbakizko emaitza bat adieraziko dute, lehenak, eraginkorrak izan beharko luketen alderdi kopurua, eta bigarrenak, ganberan eraginkortasunez jarduteko benetako aukera dutenena adieraziko dutelarik.<sup>21</sup>

Azkenik, ondorioen atalean, azalduko eduki guztiek hipotesiak frogatzen edo ezeztatzen lagundu didaten azalduko dut; bestalde, lanaren helburua bete dudana baloratuko dut; eta bukatzeko, buruturiko aurkikuntzetatik abiatuz, zenbait gogoeta abiatuko ditut.

---

<sup>20</sup> Monakon salbu, legeak ezartzen duena baino laburragoak izan ziren legealdiak egon zirelako burutu ziren launa hauteskunde hiru herrialdeetan.

<sup>21</sup> HAKE eta APKEren kasuan, emaitza modura jasoko den balioa, komadun zenbaki bat izango da, zentzu horretan, adierazten duen emaitza komaren aurretik ageri den zifraren arabera interpretatu behar da. Hau da, APKE indizea kalkulatzeko jasoko den emaitza 4,58 baldin bada, ganberan eraginkortasunez jarduteko eta erabakiengan benetako eragina izateko ahalmena duen alderdi kopurua 4 da, bosgarren alderdi bat egoera horretatik gertu dagoelarik.



## 4. HERRIALDEAK ETA ESTATU FORMAK

---

Atal honetan, Andorra, Monako eta San Marinoren bilakaera historikoa azalduko dut. Herrialdeen sorrerari, historian zehar bizi izan dituen zenbait gorabeherari, antolaketa politikoaren bilakaerari eta estatu-formaren bilakaerari erreparatuko diet gehien bat. Bestalde, herrialde ezberdinetako estatu-buruek egun duten botere eta eskumen esanguratsuenak ere azalduko ditut.

### Andorra<sup>22</sup>

Duela urte batzuk arte, Andorra, Erdi Aroan ohikoak ziren jaurgo printzipioen eraginpean zegoen herrialde bat izan da, zeinean, iraganean lurraldea kontrolatzeko egondako ika-miken ondoriozko aginpideak nabaritzen ziren. Egun, diarkia bat buru duen printzerri parlamentario bat da; hau da, bi estatu-buru ditu, Koprintzeak, are gehiago, herrialdea koprintzerri bat dela ere esan izan da. Honakoak dira Koprintzeak: Frantziako Errepublikako Presidente eta Urgelleko Elizbarrutiko Apezpikua.

VII. mendetik XIII.era bitartean, interes ezberdinen talka eta eztabaidaren plaza izan ziren Andorrako ibarrak. Karolingiar eta musulmanen arteko gudu-zelai, inperioa desagitean, Urgelleko Elizbarrutiaren eta ibarren inguruko lurraldeetako leinuen arteko tirabirak hasi ziren, lurraldearen inguruko jaurgo edota zerga eskubideak, bai eta babes militarreko betebeharrak askotan eskualdatu zirelarik.<sup>23</sup>

1278an, Lehen Banaketa Ituna izenarekin ezaguna egingo zen akordioa heldu zen, askorentzat Andorraren estatusaren finkatzea eta sorrera formala direna ahalbidetuz. Itun hark, alde batetik, bi jaun feudalen arteko akordio bat ezartzen zuen, Andorrako ibarren baitan izan zitzaketen asmoei dagokienean. Bestalde, itunaren bidez, Urgelleko Apezpikuak Andorrako jaurgoaren egikaritze aktiboaren kide eta parte-hartzaile modura onartzen zuen Foixeko kondea, azken horrek indarkeria baliatuz erdietsi berri zuen botereari uko egin ziezaion. Gainera, tributu eta zerbitzu militarri zegokionean, jaun bakoitzarekiko betebeharrak ezartzen zitzaizkien andorrtarrei.

Andorrtarrek, ordudanik, bi jaunen arteko botere orekan oinarrituriko antolaketa politiko, ekonomiko eta judizialean jardun zuten. XVII. menderako, Foixeko leinuaren ondorengotza prozesua tarteko, Frantziako Koroarenak ziren adar haren jaurgo eskubideak; ondoren, iraultza garaian, Errepublikak uko egin zielarik eskubide haiei; gerora, 1806an, Napoleonek, andorrtarren eskaripean berrezarriko zituelarik.

XX. mendean, Andorrrak zenbait aldaketa bizi izan zituen arlo politiko, sozial eta ekonomikoan. 1940ko hamarkadan, herrialdearen bizi-maila hobera egiten hasi zen,

---

<sup>22</sup> Jarraian Andorraren bilakaera historikoa azalduko duen testua, AndorraInfo.com, Andorramania.net Andorrako Gobernuaren eta Frantziar Koprintzearen Ordezkaritzaren web-orrietan eskuragarri dauden Andorraren historiari buruzko dokumentuetan agertzen diren edukiak uztartuz eratu da.

<sup>23</sup> Urgell eta Bartzelonako kondeen leinua, Caboet Etxea, Castellbò Etxea, eta azkenik Foixeko kondeen leinua, izan ziren, Andorrako Ibarren baitako tirabiretan ibili zirenak, izan ere, jaurgo eskubideen jabe ugariak, Elizarekin akordioak lortu zituzten, baina haien ondorengo belaunaldiek, guztizko eskubideak berreskuratu nahian, Elizari aurre egiten zioten; Foixeko kondeak izan zirelarik gehien tematu zirenak.

merkataritzaren eta turismoaren garapena ahalbidetuz. 1973an, bi Koprintzeen arteko bilera bat egon zen, XIII. mendean geroztik lehena izan zena; haren ondotik bien arteko harremana egonkortu, eta sarriagotan elkartu izan direlarik. Eta 1981ean botere banaketa ezarri zen, Koprintzeek baimena eman zutelarik Kontseilu Exekutiboa eratu zedin, azken urteetan agerian geratzen ari baitzen instituzioen erreforma beharra, zeinaren isla, oraindik ere Koprintzeek mantentzen zuten botere maila altua zen, esaterako.

Azkenik, 1990eko hamarkada hasieran, herrialdeak aldaketa sakonenak bizi izan zituen. Hasteko, 1990-1992 urteen artean, Andorra Europako Elkarte Ekonomikoarekin akordio batera iritsi zen. Artean, Kontseilu Orokorra Konstituzio bat idazteko negoziatzen hasia zen jada, bi urtez, haren delegazio bat, Koprintze bakoitzak bidalitako delegazio banarekin elkarlanean egongo zelarik. 1993ko martxoaren 14an, Kontseilu Orokorra eta bi Koprintzeek onarturiko testua erreferendumean bozkatu eta onartu zen.<sup>24</sup> Konstituzioak, Andorra, printzerri parlamentario modura egituratu zuen, sistema politikoa guztiz modernizatzeaz gaindi, zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko bat eratu zuelarik.

Andorarak, beraz, bi estatu-buru izan ditu historian zehar, eta gaur egun ere, hala dihardu. Konstituzioko III. Titulua da Koprintzeen funtzioak zerrendatzen dituena, honakoak direlarik horien artean nabarmentzen direnak:

- 43. eta 44. artikuluek, aspektu sinbolikoenak jasotzen dituzte, zeintzuen artean, Estatuaren ordezkari gorenak, haren iraupen eta egonkortasunaren ardura edota funtzionamendu instituzionalaren moderazioa burutu behar dituztelakoak ezartzen zaizkien.
- 45. eta 46. artikuluek, Koprintzeen eskumenak zerrendatzen dituzte
  - Parlamentuko presidentearen edota gobernu buruaren eskaera edo berrespenez gauzatzen dituzte: hauteskundeak edota erreferenduma deitu, gorteak desegin, gobernu-burua izendatu edota legeak berretsi eta promulgatu, besteak beste.<sup>25</sup>
  - Haien esku daude: bien artean indultuak erabakitzea; instituzio jardunerako beharrezko kontsideratzen diren zerbitzuak eratu eta horiek baliabidez hornitzea; Justiziaren Kontseilu Goreneko kideak izendatzea; Konstituzio Auzitegiko kideak izendatzea; legeen helegite eskaerak burutzea; nazio-arteko itunen helegite eskaerak burutzea; eta, nazio-arteko itun baten sinadura eta indarrean sartzerako baietza ematea.
- 47. artikulua, Estatuko Aurrekontu Orokorren eta Koprintzeen arteko harremana zehaztatzen du; 48.ak, Koprintze bakoitzak Andorran ordezkari zuzen bat izenda dezakela ezarri; eta 49.ak, bietako bat falta denerako ezarriak dauden prozedurak berretsi.

---

<sup>24</sup> Horri jarraiki, hilabete batzuen buruan, Andorra NBE-n sartu zen.

<sup>25</sup> 45. artikulua, bestalde, legeak Konstituzio Auzitegian erreklamatzeko prozedura ere ezartzen du; bai eta bi Koprintzeetako batek aipaturiko zerbitzuren bat eskaini ezin badu jarraitu beharrekoa.

### Monako<sup>26</sup>

XX. mende hasierara arte, monarkia absolutua zen Monakoren estatu-antolaketarako forma, nahiz eta honakoan, zori-jokoen baitan eratzen hasitako negozio aukerak ziren herrialdearen ekonomiaren indar-gunea. Grimaldi leinua, bere aldetik, herrialdearen eta estatuaren bilakaera gauzatzeko balio izan duten aldaketa gehientsuen ekimenaren arduraduna da, hasieran burutu zituzten konkista eta defentsa lanetatik, sustatu dituzten akordio eta abiarazi dituzten erreformetara.<sup>27</sup> Egun, Monako, monarkia konstituzional bat da, zeinean, Printzeak botere handia duen oraindik ere.

Jatorri eta bizimodu anitzeko herri askoren pasabide eta bizileku, Europako herrialde eta potentzia ezberdinen eragina eta estatus juridiko ezberdinak izan ditu Monakok. Liguriarrekin izan zuen loturaren ondorioz, Genovako Errepublikarena izan zen XII. eta XIII. mendeetan; azken horren amaieran, bertatik kanporatuak izan ziren *guelfiek* Monakoren kontrola eskuratu nahi izan zutelarik. *Guelfien* ekintzen ekimena eraman zuten Grimalditarrek, Frantziako Koroari eskainiriko elkarlan militarren trukean, Monakoren subiranotasun eta agintaritza eskubidea jaso zuten haren aldetik, 1489an, askorentzat herrialdearen sorrera dena ahalbidetuz.<sup>28</sup>

Nahiz eta Frantziako Iraultzak Printzerria desegin eta Grimalditarrak boteretik kendu zituen, haien jabetzak birbanatuz eta ondorengoren bat exekutatzuz, 1814ko Parisko Itunak subiranotasuna itzuli zion leinuari eta herrialdeari. Gainera, Vienako Kongresuak Piemonte-Sardiniako Erresumari eman zionez lurraldearen kontrola, 1861ean Lehen Itun Franko-Monegaskoa sinatu zen, Monakoren independentzia eta subiranotasuna berretsiz. Hamarkada berean, ireki zen Monakoko lehen kasinoa, eta hori, herrialdeak egun duen ospea metatuz joan zedin ahalbidetu zuen lehen urratsa izan zen.<sup>29</sup>

1910eko Iraultza Monegaskoaren ondorioz, indarrean zegoen monarkia absolutuarekin amaituko zuen Konstituzio bat onartu zen 1911n, beste aldaketa ugariaren artean. 1918an, bestalde, ondorengotza krisi batek bultzatuta, Bigarren Itun Franko-Monegaskoa sinatu zen, bi herrialdeen arteko harremana eguneratuz eta interesak bateratuz. 1962ko Konstituzioak, monakoar eta kanpotarren eskubide eta askatasun publikoak ezartzen zituen eta heriotza-zigorra ezabatzen zuen. 1993an, NBE n sartu zen

---

<sup>26</sup> Jarraian Monakoren bilakaera historikoa azalduko duen testua, Monaco-Gate.com, Monacomania.com, Monte-Carlo.mc, Mairie.mc eta Monakoren Bulgariako Kotsulatuaren web-orrietan eskuragarri dauden Monakoren historiari buruzko dokumentuetan agertzen diren edukiak uztartuz eratu da.

<sup>27</sup> Hein batean, Monakoren bilakaera, Grimaldi leinuaren bilakaerak eragina izan dela esan daiteke; hain zuzen ere, 1997an, Grimaldi leinuak boterea hartu zuenetik betetzen zen zazpigarren mendeurrena ospatu zen herrialdean.

<sup>28</sup> Printzerri izen, kontsiderazio edo estatusa, ordea, 1678an finkatu zuen behin betirako Monakoko Louis I.ak; aurrez, XVI. mendean, lurraldea Espainiaren protektoratu izandakoa zen, eta Kantzileria Espainiarrak ere onartu izan zuen Monakoren Printzerri kontsiderazioa, garaiko Grimalditarren oinordekoek erabiltzen zutena.

<sup>29</sup> Denbora askoan, lurralde dekadente modura hartua izan da, zorizko jokoen ospea tarteko, aristokrata eta enpresa-buruak, edota bitxi-lapurak eta iruzurgileak biltzen baitziren bertan.

Monako, eta 2002an sinatu zen Hirugarren Itun Franko-Monegaskoaren bidez, printzerriaren subiranotasuna nazioarteko legedian txertatu zen, bi herrialdeen arteko harremana eguneratzeaz gaindi.

Hala ere, Monakoko Printzeak eskumen ugari ditu egun, hain zuzen ere, nahiz eta Konstituzioko II. Titulua izan Printzeari zuzendua dagoena, testu osoan zehar jasotzen dira Printzeari aipamenak, hala, haren eskumen ezberdinak osatzen direlarik:

- II. Tituluak, adibidez, nazio arteko itun eta hitzarmenak onartu eta indarrean sartzeko duen boterea, grazia- edo hiritartasun-eskubidea aitortzeko duena, edota ordenu edota tituluak emateko duena aitortzen dizkio.<sup>30</sup> Ondorengotza edota Erregentzia gauzatu eta garatzeko prozedurak eta baldintzak ere jasotzen ditu, bai eta leinuak azken horiek berresten dituela.
- V. Tituluak argi uzten du Printzeak gobernuarengan duen eragina, izan ere, Estatu Ministroa, zerbitzu exekutiboen burua eta Gobernu Kontseiluaren aginte ahotsa dena, Printzeak aukeratzen duela ezartzen baitu, eta gobernuaren Printzearen aurrean dela erantzule; gainera, zenbait lege-, agindu- eta dekretu-prozeduratan, Printzeak deliberaziorako edo oposiziorako eskubidea duela ere jasotzen du.<sup>31</sup>
- VII. Titulua Kontseilu Nazionalaz aritzen da, nahiz eta agerian uzten duen Printzea harengan gailentzen dela. Batez ere, 66. artikulua legegintza ekimena eta azken hitza aitortzen dizkiolako Printzeari, eta deliberazio eta bozketa soilik ganberari, gainera, 74. artikulua Printzearen esku uzten du ganbera desagitea.<sup>32</sup> Bestalde, XI. Tituluan beharrezkotzat ezartzen da Konstituzio erreforma oso edo partzial baterako Printzearen eta ganberaren arteko akordioa.
- X. Titulua botere judizialaz aritzen da, zeina, nahiz eta Printzearena izan, Konstituzioak tribunalen esku uzten duen. Auzitegi Goreneko kideak hautatzeko orduan, Printzeari aitortzen zaio azken hitza; gainera, Auzitegi Gorenaren burua hautatzen du.

### San Marino<sup>33</sup>

Andorraren gisara, San Marinok ere, bi estatu-buru ditu, Kapitain Erregenteak. Bakoitzak, sei hilabetez hartzen du kargua eta kolegiotasun printzipioan oinarritutako

---

<sup>30</sup> Nazioarteko itunak onartzeko, Koroaren Kontseiluari kontsultatu ondoren erabaki, eta gainontzeko eragile instituzionalei jakinarazten die; itun batzuk ordea, Kontseilu Nazionalaren berrespesa behar dute.

<sup>31</sup> Horretarako, Estatu Kontseilua dago, VI. Tituluko artikulua bakarraren arabera, hau da, 52. artikulua arabera, Printzeak lege-proiektuetan ematen duen iritzi edo oposizioaren baitan, Printzeak berak kontsultatu dezaken eragile instituzional bat dena.

<sup>32</sup> Legegintza ekimena, ordea, Gobernu Kontseiluaren eta Printzearen artean gauzatzen da, lege-proposamen testua Gobernu Kontseiluak idatzi, eta ondoren, Printzeak bere sinadura ematen duelako.

<sup>33</sup> Jarraian San Marinoren bilakaera historikoa azalduko duen testua, RiminiBeach.it eta SanMarino.sm web-orrietan eskuragarri dauden San Marinoren historiari buruzko dokumentuetan agertzen diren edukiak, eta San Marinoko Kontseilu Nagusi eta Orokorraren web-orrian eskuragarri dagoen *Arengo* Asanbladaren historiari buruzko dokumentuan agertzen diren edukiak uztartuz eratu da.

hautaketa prozedura bat baliatzen da horretarako, estatu-buruak, Kontseilu Nagusi eta Orokorreko kideek hautatzen dituztelarik, gehiengoz. Kapitain Erregenteak, beraz, zeharkako demokraziaz hautatzen diren Errepublikako Presidenteak direla esan daiteke, haien karguak, egungo ordezkapen demokraziaren ezaugarriak eta Errepublikako instituzio historikoenak konbinatzen dituelarik.

Dioklezano enperadore erromatarraren garaian, kristauak elkartu eta haien erlijioan jardun zezaten, Titano mendiaren inguruan sorturiko komunitate baten oinordekoa da egungo Errepublika, 301. urteaz geroztik, era autonomoan eta askatasunaren balioen baitan egituratua egon omen zelarik.<sup>34</sup> Egungo Kapitain Erregenteak, bere aldetik, *Arengo* asanbladaren zuzendari karguen oinordekoak dira, eta *Arengo* asanblada, garaiko leinu-buruen bilkura bat zen, erabaki politikoak hartzeko elkartzen zena.<sup>35</sup>

XIII. mendean, San Marinoko ordenamendu juridikoa ezarriko zuen legegintza abiatu zen, gerora, 1600ean, lehen Estatutua onartuko zelarik. Italiaren Batasunaren garaian, Giuseppe Garibaldi jeneralari emandako babesari esker, Erresuma berriak eta Errepublikak elkarlanean jardun zuten hurrengo hamarkadetan.<sup>36</sup> XX. mende hasiera korapilatsua izan zuen herrialdeak, 1922an, gobernu faxista bat ezarri zen herrialdean; eta Bigarren Mundu Gerra amaieran, mendebaldeko koalizio gobernu sozialista-komunista bakarra izango zena egon zen 12 urtez agintean.<sup>37</sup>

1974an, San Marinoko ordenamenduaren oinarritzko printzipio eta hiritarren eskubideen adierazpena onartu zen, 1600ko Estatutua, eskubideen adierazpenaren txertatzearen bidez erreformatzen zuena.<sup>38</sup> Nazioarteko erakundeei dagokienean, 1988an sartu zen San Marino Europar Kontseiluan, 1992an NBE-n, eta 2002an Garapen eta Kooperazio Ekonomikorako Erakundearekin akordio bat lortu zuen. Azken urte horretan, bukatzeko, Eskubideen Adierazpena moldatu zen, eskubide eta askatasunen bermea nazioarteko zuzenbidera txertatu eta Arauen Konstituzionaltasunaren Bermerako Kolegioa eratzeko, besteak beste.

Egun, Konstituzioko 3. artikulua eta 2005eko abenduaren 16ko 185. lege kualifikatuak jasotzen dituzte Kapitain Erregente karguaren nondik norakoak. Sei hilabetekoa da Erregente bakoitzak karguan duen iraupena, ondoren, ezin duelarik kargua berriz eduki

---

<sup>34</sup> Ordurako, jada, *Terra di San Marino* izena zuen, komunitatea sortu eta haren jarduna sustatu zuen Marinoren omenez, zeinak, bere heriotzean, Erromako Enperadorearengandik eta Aita Santuarengandik aske uzten zituela esan zien jarraitzaileei.

<sup>35</sup> Haren inguruko lehen aipua 1000. urtekoa da, garai hartarako, jada, Erregente bakoitzaren agintaldia sei hilabetez ezarria zegoen, karguan zeuden pertsonen botere gehiegi ez metatzeko helburuarekin

<sup>36</sup> Horren ondorioz, bizi-maila hobetu, eta Errepublika modernizatu ahal izan zen, egun oinarritzkoak diren zenbait zerbitzu eskaintzen hasi ahal izan zelarik.

<sup>37</sup> Azken horren ondorioz, Italiak blokeo bat ezarri zion urte batzuek, merkataritza zailduz eta lantegi batzuen itxiera eraginaz. Aurrez, bi gerra handietan neutral mantendu izan bazen ere, Lehenean blokeo bat eta Bigarrenean okupazio eta bonbardaketak pairatu behar izan zituen.

<sup>38</sup> San Marinok, formalki konstituziorik ez badu ere, Eskubideen Adierazpen hori da konstituziotzat hartua, hark izan ditzakeen hutsuneak bete edota edukiak sakonago garatzeko, lege-konstituzionalak daudelarik. Horregatik, aurrerantzean, Eskubideen Adierazpena izendatzeko Konstituzio hitza erabiliko dut.

hiru urtean.<sup>39</sup> Bestalde, beharrezkoa da jatorriz sanmarinoarra izatea eta 25 urtetik gora edukitzea, Erregente hautatua izan ahal izateko. Estatu-buru gisara, Kapitain Erregenteek estatuaren ordezkapen gorena, eta ordenamendu konstituzionalaren bermea ere gauzatzen dute.<sup>40</sup>

Nahiz eta bozka eskubiderik ez izan, Kontseilu Nagusi eta Orokorren presidentzia eta kanpo-ordezkaritza gauzatzen dute, haren bilkurak deitzen dituztelarik. Hauek dituzte funtzio garrantzitsuenak: ganbera desegin eta hauteskundeak deitu; erreferendum eta Gazteluetako hauteskundeen datak finkatu; Estatu Kongresuaren eta Gaztelu Kapitainen bilkuren koordinazioa; hiritarren ekimenak jaso eta haiekin bildu, eskatzen duten informazioa lortu eta helarazteko; ordezkari diplomatikoak izendatu; Kontseilu Judiziala deitu; eta, ohorezko izendapenak eman.

Bestalde, Kapitain Erregenteak dira ganbera-legegileak onartzen dituen lege eta dekretuak promulgatzen dituztenak. Horietakoren batean Konstituzioarekiko bateraezintasuna dagoela ulertzen badute, testua ganberari birbidali diezaioke delibrazio berri bat garatzeko mezuarekin; hala ere, ganberak testua berriz onartzen badu, legea promulgatu egin behar da. Zenbait dekretu igortzeko eskumena ere badute, Estatuko Barne Idazkariak berretsi behar dituenak. Kontseilu Nagusi eta Orokorrak onartzen dituen nazio-arteko hitzarmenak baieztatzen dituzten dekretuak ere promulgatzen dituzte.<sup>41</sup>

## 5. ORDEZKAPEN GANBERAK

---

Atal honetan, Andorra, Monako eta San Marinoko ordezkariak ganberen bilakaera historikoa eta egun dituzten ezaugarriak azalduko ditut. Egungo ezaugarriak dagokienean, legealdiaren iraupenei, lanaldiei, ganberaren barne antolaketari, prozedura legegileei eta exekutiboarekiko dituzten harremanei erreparatuko diet, bestalde, ganbera bakoitzak izan ditzakeen bestelako eskumenak eta aurrekontu prozedurak ere aipatuko ditut.

### Andorra<sup>42</sup>

Andorrako ordezkapen ganbera Kontseilu Orokorra da, haren historian ñabardura ugari jasotzen badira ere, hiru aldi nagusi bereiz daitezke. Sorrerakoa 1419an hasi zen, Andorrako jaunek, biztanleen eskariz, Lurralde Kontseilua eratzeko

---

<sup>39</sup> Apirilaren 1etik urriaren 1erakoak eta urriaren 1etik apirilaren 1erakoak dira agintaldiak.

<sup>40</sup> Errepublikako instituzioek haien arteko oreka mantendu dezaten, horiei ordenamendu konstituzionala errespetatu dezaten gogorarazteko mezuak bidaltzeaz gaindi, instituzioen arteko eskumen esleipen auziak planteatu diezazkiokete Arauen Konstituzionaltasunaren Bermerako Kolegioari.

<sup>41</sup> Kapitain Erregente karguaren ezaugarrien deskribapenerako testua, Konstituzioko eta 2005eko abenduaren 16ko 185. lege kualifikatuko edukia uztartuaz gaindi, 2018ko abuztuaren 3ko 3. lege kualifikatuko, 2005eko abenduaren 15eko 184. lege kualifikatuko eta 2005eko abenduaren 15eko 183. lege konstituzionaleko edukia uztartuaz ere, eratu da, azken hirurek, Erregentziak Errepublikako zenbait organorekiko duten harremana ezartzen baitute.

<sup>42</sup> Jarraian Andorrako Kontseilu Orokorren bilakaera historikoa azalduko duen testua, instituzioaren web-orrian eskuragarri dauden Kontseiluaren historiari buruzko dokumentu ezberdinetan agertzen den informazioa uztartuz eratu da.

baimena eman zutenean. Aurrerantzean, elizbarruti guztietako ordezkariak bilkura bat burutuko zuten urtean behin, ibar ezberdinetan sortzen ziren eskari edo beharrian ezberdinei erantzuna eman nahian erabakiak hartzeko eta inguruko jaurerri eta lurraldeekiko harremanak eta akordioak ere lantzeko.

1866an, Erreforma Berrirako dekretuaren bidez, denboraren poderioz eskumenak eta autonomia hedatu zituen ganbera haren bigarren aldia hasi zen.<sup>43</sup> Aurrerantzean, Ibarretako Kontseilu Orokor deituko zen, eta araudi ofizial batek, aurretik kontseiluaren joanean nolabait definitu izan ziren agintaldiaren iraupenaren eta kontseiluko karguen ezaugarriak jaso zituen. Hartara, lau urteko agintaldia eta ganberako presidente eta presidente-orde karguak finkatu ziren, azken horiek 30 urtetik gorako ordezkariak beteko zituztelarik.

1981ean, Kontseilu Exekutiboaren sorrerarekin batera, Kontseilu Orokorrak zuen eskumen exekutiboa galdu zuen. Ordurako, ordea, zenbait eskumen garrantzitsu eskuratuak eta errotuak zituen, besteak beste, tributuen kudeaketa, merkataritza, zerga-salbuespen, muga eta hiritartasun arloen baitan. 1993an, azkenik, Konstituzioa onartu zen, Kontseilu Orokorrari botere-legegilea aitortzen zitzaiolarik.

Andorrako Kontseilu Orokorra, hiritarren ordezkapenerako ganbera izateaz gaindi, eskumen esanguratsuak dituen ganbera legegilea ere bada, izan ere, 1993ko Konstituzioak dioen gisara:

*<<Kontseilu Orokorrak, zeinak, biztanleria nazionalaren eta zazpi elizbarrutietako biztanleriaren ordezkapen misto eta parekidea adierazten duen, andorreatar herria ordezkatzeko du, botere legegilea gauzatzen du, Estatuko aurrekontuak onartzen ditu eta Gobernuaren ekintza politikoa sustatu eta kontrolatzen du.>> (Constitució del Principat d'Andorra, 1993: 29)*

Konstituzioak, bestalde, ganberaren zenbait eskumen zerrendatzen ditu, horiek, Kontseilu Orokorraren Araudian sakontzen eta garatzen direlarik, azken horrek lege maila eta konstituzionaltasun izaera ditu, eta hari jaramon egin gabe garatzen diren lege-prozedurak Konstituzioaren aurkakotzat hartzen dira.<sup>44</sup> Arrazoituriko etenik ezean, Kontseilu Orokorraren legealdiak lau urtekoak dira, horietako bakoitza bi lanalditan banatzen delarik, martxoaren 1etik uztailaren 15erakoa eta irailaren 1etik urtarrilaren 31rakoa.

---

<sup>43</sup> "Manual Digest" argitalpenak, esaterako, Lurralde Kontseiluak 1748an zituen eskumenak zerrendatu zituen: errepide, ur, iruzur, baso komunal, harategi edota okindegien inguruko erabakiak hartzen zituztelarik. Bestalde, "Politar Andorrà" liburuak, ganberaren prozedura eta jardunaren deskripzio zehatzenak jasotzen ditu.

<sup>44</sup> Hain zuzen ere, araudi horretan azaltzen den edukia moldatuz eta uztartuz eratu da, jarraian Kontseilu Orokorraren ezaugarriak azalduko dituen testua; izan ere, dokumentuko informazioari lanaren egiturarekiko jarraikortasun izaera bat emate aldera, jatorrizko dokumentuak eskaintzen duen ordena aldatzea erabaki da.

Bilkurak publikoak izaten dira, nahiz eta ganberak gehiengoz erabaki dezaken ezkutuko bilkurak egitea.<sup>45</sup> Ohiko lanaldiez kanpo edota ganbera desegina dagoenean, ganberaren boterea bermatzen duen Batzorde Iraunkor bat dago, Kontseiluko Presidenteak eta sei kontseilarik osatzen dutena.<sup>46</sup> Kontseilariak eta haien jarduna, talde parlamentarioen bidez egituratzen dira, zeintzuk, oro har, ordezkariak gauzatzen duten alderdi politiko ezberdinen arabera antolatzen diren.

Kontseiluko Presidenteak, bere aldetik, ganbera ordezkatu eta haren araudia betearazi behar du, eta zalantza dagoen kasuetan, hura interpretatu. Bestalde, nahiz eta eztabaidetan moderazioa burutu behar duen, bozka eskubidea du.<sup>47</sup> Kontseiluko presidentzian, bere aldetik, bi idazkari daude, Presidente eta Presidente-Ordeaz gaindi; presidentziak, afera administratiboak kudeatzeaz gaindi, aurkezten zaizkion izaera parlamentarioko idazkiak aztertzen ditu, horien onargarritasuna eta garatu behar duten prozesua erabakitzen dituelarik.

Andorrako Kontseilu Orokorrak, aipatu bezala, botere legegilea du, zeina, izaera ezberdineko testuak onartuz gauzatzen duen. Lege komunak, lege proiektuen edo lege proposamenen ondorio izan daitezke; lege proiektuak Gobernuak abiatzen ditu; eta lege proposamenak, talde parlamentario batek, hiru kontseilarik, hiru udalerrik edo hauteskunde-eroldaren %10ak. Lege kualifikatuek aurrekoen jatorri bera izan dezakete, baina Konstituzioan aipatzen diren arlo jakin batzuetako araudia eta edukia garatu behar dituzten testuak dira.<sup>48</sup> Lehentasunezko legeak, Gobernuak 48 orduan eta irakurketa bakarraren ondoren bozkatuak izan behar direlako irizpidearekin aurkezten dituenak dira.

Hasteko, Kontseiluko presidentziak proiektu edota proposamenak onartzen dituen, eta kualifikatu izaera ematen dien erabaki behar du; edota Gobernuaren lehentasun irizpidearekin bat datorren. Lehentasun irizpidea berretsiz gero, kontseilarien bosten batek lehentasun izaeraren harirako eztabaida bat eska dezake, bestela, kontseilarien herenak. Lehentasunezkoa ez delako posizioa gailentzen den kasuetan, lege prozedura orokorra hasiko da, Gobernuak proiektua erretiratzen ez badu. Presidentziaren erabakiaren ondoren emendakin epeak irekitzen dira.<sup>49</sup>

---

<sup>45</sup> Bi Bilkura Tradizional ere burutzen dira, horietan, kontseilariak ohiturazko arropa janzteaz gaindi, iraganean biltzarrak zuen lan dinamika gogoratzen da.

<sup>46</sup> Batzorde Iraunkorra da, bestalde, ez-ohiko bilkuren deialdien baitan azken hitza duena.

<sup>47</sup> Bozketa gauzatzearen kasuan salbu, Kontseiluko Presidenteak ezingo balu funtzio edo betebeharren bat bete, Presidente-Ordearen esku geratuko litzateke. Presidenteak ezin badu parte hartu, Presidente-Orde bat dago.

<sup>48</sup> Besteak beste, alarma egoera, salbuespen egoera, hauteskunde eta erreferendum legea, udalerrien eskumenak, tributuen kudeaketa, justizia edo hiritartasuna eta hura izateko baldintzak dira arlo horiek osatzen dituztenak.

<sup>49</sup> Lege proiektuen kasuan osotasun emendakinen epean, testu alternatibo bat eztabaidatu eta onartu edota proiektua Gobernuari itzultzea erabaki daiteke, azken hori ezean, artikulua emendakin epea irekitzen da. Lege proposamenen kasuan, Gobernuak testua garatzeko irizpidea adierazi ondoren, artikulua emendakinen epea irekitzen da.



Ondoren, Kontseiluko presidentziak legea landuko duen batzordea hautatzen du. Batzorde Legegileak, talde parlamentario ezberdinek ganberan duten pisuaren arabera osatuak daude, eta lege-prozeduretako testuak aztertu eta lantzen dituzte.<sup>50</sup> Batzordean, artikulua emendakinak Gobernuari helarazi ondoren, batzordeak hautaturiko txostengile batek, horiek landu eta antolatzen ditu, batzordeak ere bere txostena burutzen duen bitartean. Bi txostenak aztertu eta bozkatu ondoren, presidentziari bidaltzen zaizkio.

Presidentzian 48 orduz bozka partikularra emateko edo emendakin gehigarriren bat eranstea aukera egongo da, ondoren aldizkari ofizialean argitaratu eta bilkuran landuko delarik. Bilkuran eztabaidatu eta gehiengo osoz onartzen bada, Koprintzeen sinaduraren ondoren, aldizkari ofizialean argitaratu eta legea indarrean sartzen da.<sup>51</sup> Lege Kualifikatuen kasuan, baliteke gehiengo osoa beharrezko izatea, edo, maila nazionalen hautaturiko kontseilarien gehiengo osoa eta elizbarrutietan hautaturikoena.<sup>52</sup>

Kontseilu Orokorren beste eskumen esanguratsuetako bat, Estatuko aurrekontua onartzea da. Aurrekontuak lege proiektu baten ondorio diren heinean, Gobernuarena da testu bat landu eta aurkezteko ekimena. Emendakin epeei dagokienean, biak egun berean hasten dira.<sup>53</sup> Aurrekontu Legea, gehiengo osoz onartu behar da eta ganberan lantzen ari diren gainontzeko kontuekiko lehentasunezkoa izango da.

Azkenik, Kontseilu Orokorrek Gobernuaren ekintza politikoa sustatu eta kontrolatzen du. Eskumen hori bete dadin ahalbidetzen duten mekanismoen artean dago Gobernu Buruaren hautaketa. Hauteskunde ondorengo lehen bilkuran, kontseilarien bosten baten babesa jasotzen duen hautagai orok gobernu programa bat aurkezteko du. Proposamenak eztabaidatu eta bozkatu egiten dira, gehiengo osoa behar delarik Gobernu Buru hautatua izateko.<sup>54</sup> Kargua, bere aldetik, bozketaren emaitza Koprintzei jakinaraztean hartuko du hautetsiak, gero, gobernu eratu eta ministroak proposatzeko eskumena izango duelarik.

Hautetsia izan eta kargua zin egin duen Gobernu Burua, eta hark osatzen duen Gobernuak, hartzen dituzten erabakien erantzule bilakatzen da Kontseilu Orokorren

---

<sup>50</sup> Bi motatako batzordeak daude, 8 batzorde iraunkor (barne-politika, kanpo-politika, ekonomia, finantzak eta aurrekontua, lurralde-politika eta hirigintza, osasun eta ingurumena, gizarte-zerbitzuak, eta, hezkuntza, ikerketa, kultura eta kirola alorretakoak), eta Batzorde Bereziak, ganberak, interes-orokorrari loturiko edozein gairen baitako ikerketa edo inkestarako sortzea erabakitzen dituenak.

<sup>51</sup> Legea artikuluz artikulua bozkatzeko da, eta artikulua bakoitzaren bozketan, Kontseiluko presidentziak planteatu dituen emendakin gehigarriak edota bozka partikularrak eztabaidatzen dira, horiek onartzen diren edo ez erabakitzeko.

<sup>52</sup> Hauteskunde eta erreferendum legeak, eta udalerrien eskumen eta emakidenak, beharrezko dute azken gehiengo hori.

<sup>53</sup> Osotasun emendakinen inguruko eztabaida, artikulua emendakinen epearen barruan burutu ahalko da, eta kontuan izan behar da, osotasun emendakinen eztabaidan ezarri behar dela diru-sarrera aurreikuspena eta gehiengo gastua.

<sup>54</sup> Bigarren itzulian beharrezkoa balitz, lehen bozketan emaitza hoberenak lortu dituzten bi hautagaiek soilik hartu ahalko lukete parte.

aurrean, zentzu horretan, bi eragileen arteko komunikazioa ahalbidetzen duten mekanismoak daude. Kontseilariak, galderak egiteko eskumena dute, Gobernuaren erantzuna idatzizkoa edota bilkuran ahoz emandakoa izan daitekalarik.<sup>55</sup> Gobernuak, bere aldetik, ganberari zuzentzea erabaki dezake, erabaki politikoen oinarri dituen arrazoiak azalduta, orientazio politikoaren inguruko eztabaida bat abiatuz, edota ganberari programa, plan edo komunikatu jakin baten baitako adierazpen bat eskatuta.<sup>56</sup>

Kontseilu Orokorrak Gobernu Buru bat hautatzean, hari konfiantza eman diola ulertzen da, zentzu horretan, konfiantza horren galera adieraziz, Gobernu Burua eta Gobernua kargugabetzeko mekanismoak ere badaude. Zentsura-mozioa, kontseilarien bosten batek aurkeztu dezake, gobernua eratu eta sei hilabeteko epea bete ondorenetik aurrera, gehiengo osoz onartu behar delarik. Konfiantza-azua, Gobernu Buruak aurkezten du, adierazpen politiko edo erabaki jakin bati lotuta, gehiengo sinplez onartu behar da, hala ezean, Gobernu Burua dimititu beharrean legoke.<sup>57</sup>

### Monako<sup>58</sup>

Hiruretan historia gutxien duena, XX. mendekoa da Monakoko ganberaren sorrera, haren eskumenak, herrialdeko monarkiaren borondatearen arabera hedatu izan direlarik oro har, alegia, eskumenak aitortenez lortu ditu, irabazi baino. 1910eko Iraultza Monegaskoan zehar burutu zen aldarrikapen nagusienetako bat izanik, 1911ko Konstituzioak ordezkari hautetsiz eraturiko ganbera baten sorrera ezartzen zuen. Lehen Kontseilu Nazional hark, eskumen oso mugatuak zituen, ganberako presidentea esaterako, Printzeak izendatzen zuelarik.

1962ko Konstituzioak, ganberaren boterea hedatzeko balio izan zuen, eta asanblada hautetsi estatusa emateko ere bai, legegintza eta aurrekontu eskumenak aitortzen zizkiolarik. Aurrerantzean, ganberak, Gobernu Kontseiluak planteatzen zizkion lege-proiektuen inguruko erabaki bat hartzeko eta aurrekontuen prozedura gauzatzeko eskumenak izango zituen. Bestalde, zuzeneko zergak baimentzeko erabateko eskumena ere ematen zitzaion, eta nazioarteko itunen berrespenerakoa.<sup>59</sup>

2002ko Konstituzio berrikuspenak, ganberak Printzerriko sare instituzionalean zuen posizioa berretsi zuen. Legegintza-ekimena pixka bat hedatu zitzaion ganberari,

---

<sup>55</sup> Bilkuran ahoz emandako erantzunak, mozio bat izan dezakete ondorio, ganberak bere jarrera adierazi, eta eztabaidatu ondoren, akordio proposamen batera heldu beharko duena.

<sup>56</sup> Gainera, bilkura informatiboak ere badaude, Gobernu Buruak edo Ministroen batek edo ganberak eskatuta, gai jakin baten inguruan informazioa helarazteko balio dutenak.

<sup>57</sup> Bietan ere Gobernu Burua kargugabetuz gero, Gobernu Burua hautatzeko prozedura jarriko litzateke abian, berriz ere.

<sup>58</sup> Jarraian Monakoko Kontseilu Nazionalaren bilakaera historikoa azalduko duen testua, instituzioaren web-orrian eskuragarri dagoen Kontseiluaren historiari buruzko dokumentuan agertzen den informazioan oinarrituz eratu da.

<sup>59</sup> Gobernuari legegintza-proposamenak egiteko eskumena ere ematen zitzaion Kontseilu Nazionalari, halere, gobernuari, proposamen horiekiko edozein erabaki hartzeko eskumena ematen zitzaion, hark inolako justifikaziorik ematen ez bazuen ere. Era berean, ganberak onarturiko lege-emendakinek, gobernuaren onespena beharrezko izango zuten.

Gobernu Kontseiluari sei hilabeteko epe bat ematen zitzaiolarik lege-proposamen bati erantzuteko, eta urtebetekoa testu bat aurkezteko, hura onartzen bazuen.<sup>60</sup> Gainera, nahiz eta Gobernu Kontseiluak lege-proiektua erretiratzeko eskumena mantendu, emendakinek, jada, ez zuten haren onespenerik beharko. Bukatzeko, aurrerantzean, zenbait nazio-arteko hitzarmenek, Kontseilu Nazionalaren onespenera beharrezkoa izango zuten, zeina lege baten bidez adierazi beharko zen.<sup>61</sup>

Monakoko Kontseilu Nazionalak, hiritarren ordezkapen politikoa gauzatzeaz gaindi, botere legegilea ere badu, nahiz eta Printzearekin partekatzen duen:

*<<Botere legegilea Printzeak eta Kontseilu Nazionalak gauzatzen dute>>* (La Constitution Monégasque, 1962, 2002: 1)

Honakoan ere, Konstituzioak ganberaren zenbait eskumen eta ezaugarri jasotzen baditu ere, Kontseilu Nazionalaren Araudia da, horiek guztiak era sakon eta garatuagoan jasotzen dituena.<sup>62</sup> Bestalde, eskumen oso mugatuko ganbera da, izan ere, ez du Gobernu Kontseilua kontrolatzeko gaitasunik, eta Printzeak eta Gobernu Kontseiluak prozesu legegilean esku hartzeko duten aukera oso esanguratsua da. Zentzu horretan, aurrekontuak onartzeko eskumena eta nazio-arteko zenbait itunen berrespena nabarmentzen dira Kontseilu Nazionalaren kasuan, nahiz eta horietan ere, Gobernu Kontseiluak eragin nabarmena izan.

Salbuespenak salbuespen, Kontseilu Nazionala bost urtean behin berritzen da hauteskunde bidez. Kontseiluak bi lanaldi ditu, lehena, apirilaren 1etik ekainaren 30erakoa da, eta legeak aztertu eta lantzeko baliatzen da; bigarrena, urriaren 1etik abenduaren 30erakoa da, aurrekontuak aztertu eta lantzeko erabiltzen da. Bilkurak publikoak dira, nahiz eta Kontseiluak hala erabakiz gero, bilkura pribatuak burutu ditzaken. Kontseilariak talde politikoetan bildu daitezke ganberan jarduteko. Taldeen eraketaren ondoren, talde eta kontseilariak bi multzotan bereiziko dira, gehiengoa eta gutxiengoa deritzenak.<sup>63</sup>

---

<sup>60</sup> Gainera, bi eragileak ez baziren akordio batera heltzen, gobernuak posizioa justifikatu beharra zuen.

<sup>61</sup> Nazioarteko hitzarmen horiek, indarrean zegoen marko legalarengan eragina izango zutenak; Monako, Kontseilu Nazionalako kideen parte hartzea beharrezko izango zuten nazio-arteko erakunderen batean sartuko zutenak; edota, indarrean zeuden aurrekontuengan aurreikusia ez zegoen gasturen bat beharrezko izango zutenak.

<sup>62</sup> Jarraian Kontseilu Nazionalaren ezaugarriak azalduko dituen testua, haren araudian eta web-orrian eskuragarri dauden aurrekontu prozedurei buruzko zenbait dokumentutan agertzen den informazioa uztartuz eta moldatuz eratu da, izan ere, dokumentu ezberdinetako informazioari lanaren egiturarekiko jarraikortasun izaera bat emate aldera, jatorrizko dokumentuek eskaintzen duen ordena aldatzea erabaki da.

<sup>63</sup> Bi multzoek kontseilari kopuru bera badute, Kontseiluko Presidentearen jatorrizko taldea izango da, gehiengoa osatuko duen taldea. Bestalde, talde gabeko kontseilariak gehiengoaren parte izateko, haren kide direlako adierazpen sinatu bat helarazi behar diote Kontseiluko Presidenteari.

Kontseilu Nazionala bere agendaren jabe eta arduraduna bada ere, Printzeak ez-ohiko bilkurak deitzeko eta horien egitaraua erabakitzeko eskumena ere badu.<sup>64</sup> Kontseilu Nazionaleko presidentziak hiru eta lau kide artean izan ditzake, Presidente, Presidente-Ordea eta Ekonomia eta Finantza Nazionalen Batzordeko Presidente dira beti izango dituen kideak; laugarrena, ganberako gutxiengoak hala erabakitzen badu, haren ordezkari bat izango delarik. Presidentziak, araudia betetzen dela ziurtatzen du, eta hura kontuan hartuta, ganberako zerbitzu administratiboen jarduna eta antolaketa ezartzen ditu.<sup>65</sup>

Monakoko Kontseilu Nazionalak, gehien bat, legeen azterketa eta deliberazioaren bidez egikaritzen du botere legegilea. Bi lege mota lantzen ditu, ohiko legeak eta larrialdi legeak. Ohiko legeen prozedura bi eratakoa izan daiteke; lege proiektuak, Gobernuak lantzen ditu eta Printzeak sinatu behar ditu, Kontseiluko presidentziari helarazi aurretik; lege proposamenak, edozein kontseilarik aurkez ditzake, gainontzekoek babestu dezaketelarik. Larrialdi legeak ere, Gobernu jatorriko lege proiektuak dira, horiek ordea, larrialdi adierazpen batekin helarazten zaizkio Kontseiluko presidentziari.

Ganberako Presidenteak testua heldu zaiola adierazten duenean, hautetsiek bilkuran erabakitzen dute testua zein batzordek landuko duen. Larrialdi legeen kasuan, 6 eguneko epea dago prozesua burutzeko; Kontseiluko presidentziak erabakitzen du testua zein batzordek landuko duen, bilkurak larrialdi adierazpenaren ebazpen bat ematen duen artean. Ebazpena aldekoa bada, larrialdi legeak lehentasuna izango du gainontzeko prozedurengan, bestela, ohiko prozedura legegilea abiatzen da.

Batzorde bakoitzak bost kide izan behar ditu gutxienez, eta ganberako kide oro batzorde iraunkorren bateko kide izan behar da.<sup>66</sup> Batzordeetara heltzen diren testu guztiek prozedura bera jarraitzen dute testua irakurriz eta beharrezko irizten bada emendatuz.<sup>67</sup> Batzordeak izendatutako txostengile batek, lan hori, bukaera eztabaidatu eta bozkatuko den txosten batean jasotzen du. Batzordeak lana amaitutzat ematean, testuaren lanketa ganberaren agendan sartzen da.

Gero, bilkuran, lege-proiektu edota proposamenaren arrazoi adierazpena eta batzordearen txostena irakurtzen dira. Lege-proiektuen kasuan soilik, Kontseiluak eta Gobernuak batzordearen emendakinekiko iritzi ezberdina badute, bigarrenak proiektua erretira dezake. Hala ezean, eztabaida gauzatzen da, non, hautetsi bakoitzak

---

<sup>64</sup> Bestalde, kontseilarien bi herenek ohiko bilkura bati itzarotea gomendagarria ez dela irizten badu, Kontseiluko Presidenteari ez-ohiko bilkura bat deitzea eska diezaioke.

<sup>65</sup> Ganberak, ordea, azterketa batzorde izaerarekin biltzeko eta presidentziak hartzen duen edozein erabaki eztabaidagarrirekiko adierazpenak gauzatzeko eskubidea du.

<sup>66</sup> Monakoko Kontseilu Nazionalak lau batzorde iraunkor ditu, finantza eta ekonomia nazionala, gizarte afera eta bestelakoak, legegintza, eta, kanpo-harremanak dira lantzen dituzten arloak.

<sup>67</sup> Batzordearen lanketa epean, informazioa eskatu eta emateko asmoarekin, batzordea eta Gobernu Kontseiluarekin edo ganberarekin bildu daiteke.

bere iritzia eta bozka irizpidea azal ditzaken.<sup>68</sup> Ondorengo bozketa, lehenik artikuluz artikulua eta gero osotasunean burutzen da, gehiengo soilak beharrezko delarik onartua izateko.

Lege-proiektua onartu ondoren, Estatu Ministroak Printzeari helarazten dio testua. Printzeak, onarpena berretsi eta promulgatzen badu, aldizkari ofizialean argitaratuko da, legeari indar exekutiboa emanaz. Lege-proposamena onartu ondoren Estatu Ministroak sei hilabeteko epea du, testuari emango dion jarraipenaz Kontseilua jakinarazteko.<sup>69</sup> Testua lege-proiektu bilakatzen badu, hura pixka bat eraldatu eta urte beterik buruan lege proiektu prozedura abiatuko da. Bestela, prozesua eten dezake, bilkuran irakurtzen den adierazpen batekin, zeina, eztabaida batek jarrai dezakeen.

Monakoko Kontseilu Nazionalaren beste eskumen esanguratsu bat, Aurrekontu Legea onartzea da, urte bakoitzeko bigarren lanaldia delarik horretarako bideratzen duena. Aurrekontu Legeak, berezitasun batzuk dituen lege proiektu prozedura jarraitzen du, hasteko, Gobernu eta Kontseilu Nazionalak aurrekontu prozeduraren egutegia ezartzen dutelarik. Oro har, apiriletik ekainera, iragan urteko kontuen berrikuspen eta itxialdia burutzen da; eta uztailaren 1ean, aurrekontu proiektua aurkeztu eta akatsak zuzentzen dira.

Urriaren zehar, zuzenketa aurkeztu ondoren, Kontseilu Nazionaleko Azterketa Batzordearen eta Gobernuaren arteko elkarlana hasten da, haren gida, Finantza eta Ekonomia Batzordeak aurrez burutu duen galdera zerrenda bat izango delarik. Azaroaren 1ean, elkarlan horren ondorio den behin behineko aurrekontua aurkezten da, Finantza eta Ekonomia Batzordeak haren eta elkarlanaren harira buruturiko txosten batekin batera. Txostena bilkuran irakurri ondoren, azaro eta abendu artean, behin behineko aurrekontua eztabaidatzen eta bozkatzen da.

### San Marino<sup>70</sup>

Eguneko Kontseilu Nagusi eta Orokorra, XIII. mendean sortu zen Hirurogeien Kontseilua izenarekin. San Marinon udalerrri bat egituratu zenean, horren asanblada izateko sortu bazen ere, hasieran Kontseilu Bereziarekin boterea partekatuz, eta *Arengo* asanbladarekin eta Hamabien Kontseiluarekin batera jardun zuen. Hain zuzen ere, 1600eko Estatutuak, komunitateko “printze goren, absolutu eta bakar” modura ezartzen du ganbera, eta “aipaturiko lurralde guztietako ondasunen bizi- eta heriotza- eskubidea” eta horiek gobernatu eta kudeatzeko beharrezkoak diren botere guztiak aitortzen dizkio.

---

<sup>68</sup> Hala, hiritargoari lege-proiektuaren arrazoiak eta hautetsi bakoitzaren iritzia zergatiak helarazi nahi zaizkio.

<sup>69</sup> Kontuan izan behar da, Gobernuaren erantzunak aldizkari ofizialean argitaratzen direla, bilkura publikoetan burutzen diren heinean, hartara, Gobernuak nolabait mugatzen da, eta Kontseiluaren eta Gobernuaren arteko harreman orekatuago bat ezartzen.

<sup>70</sup> Jarraian San Marinoko Kontseilu Nagusi eta Orokorren bilakaera historikoa azalduko duen testua, instituzioaren web-orrian eskuragarri dauden Kontseiluaren historiari eta *Arengo* Asanbladaren historiari buruzko dokumentuetan, eta San Marinoko Gazteluen web-orrian eskuragarri dauden Kontseiluaren historiari buruzko dokumentuan agertzen diren agertzen diren edukiak uztartuz eta moldatuz eratu da.

Ganbera, gutxi batzuen eskuetan egotera pasa zen denbora luzez, nahiz eta izaera demokratikoa mantendu, klase guztietako ordezkariak elkartzen baitzituen.<sup>71</sup> Horregatik, *Arengo* asanbladaren itzulera eta boteretzea aldarrikatzen zuten kritikak eman izan ziren, azken hura, demokrazia zuzenago baten praktikan oinarritzen baitzen.

Kontseilua Nagusi eta Orokorraren eskumenei dagokienean, horiek beti izan dira nahiko zabalak. Adibidez, XX. mendera arte botere esanguratsuak mantendu izan dituzten Kapitain Erregenteen hautaketa eta haien kontrola izan du eskumen, edota, nazioarteko akordioak erdiestea, bai eta zerga bilketa kudeatu eta Estatuaren gastua planifikatzea. Bestalde, formalki 60 kontseilari baditu ere, horietatik bi Kapitain Erregenteak dira, zeintzuk kontseilarien artetik hautatu, eta kontseilarien ohiko funtzioak galtzen dituzten haien agintaldirako.<sup>72</sup> Beraz, 58 kontseilarikoa da ganberako kideen kopuru praktikoa.

San Marinoko Kontseilu Nagusi eta Orokorrak ere, hiritarren ordezkartza politikoa eta botere legegilea gauzatzen ditu, Konstituzioak xedatzen duen moduan:

*<<60 kidez osaturiko Kontseilu Nagusi eta Orokorrak, botere legegilea, zuzendaritza politikoaren erabakimena eta kontrol funtzioen egikaritze eskumena ditu.>>*  
(Dichiarazione dei Diritti dei Cittadini e dei Principi Fondamentali Dell'ordinamento Sammarinese, 1974, 2000, 2002, 2005: 5)

Aurreko kasuetan bezala, Konstituzioak ganberaren harira aipatzen duen edukia sakondu eta garatuz, Kontseilu Nagusi eta Orokorraren Araudia dago.<sup>73</sup> Ganberaren legealdiak bost urtekoak dira, eta lanaldiei dagokienean, gutxienez hilean behin deitu behar dutela ezartzen du araudiak, etenaldirik egitekotan, abuztuan burutuko litzatekelarik.

Bilkurak publikoak dira, nahiz eta gai batzuk bilkura pribatuan landu daitezken Erregentearen edo kontseilarien bi herenen erabakiz. Bilkurak balizko jotzeko, beharrezkoa da kontseilarien erdia horietara joatea, Erregenteen izendapen bilkuran salbu.<sup>74</sup> Kontseilu Nagusi eta Orokorraren jardunean, kontseilariak kontseilu taldeetan dihardute, taldeak, oro har, aurkeztu diren zerrenden arabera eratzen dira. Taldeak eratu ondoren, hauteskundeen garaile izendatu den hautagaitza edo koalizioari loturiko kontseilu taldeek, gehiengoa eratzen dute; gainontzekoek gutxiengoa.

---

<sup>71</sup> Are gehiago, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar, noblezia bat egonkortu zen herrialdean.

<sup>72</sup> Erregenteak bozketaz hautatzen dituzte kontseilariak, eta nahiz eta bakoitzak sei hilabeteko kargualdia izan, bestearen agintaldian, beharrezkoak diren ordezkapenak egiteko erreserban geratzen dira. Tarte horietan, kontseilari gisara duten bozka eskubidea galtzen dute, eta batzordeetako ahots eta bozka, ordezkari baten esku geratzen dira.

<sup>73</sup> Hain zuzen ere, araudi horretan azaltzen den eta instituzioaren web-orrietan eskuragarri dauden dokumentu ezberdinetako informazioa moldatuz eta uztartuz eratu da, jarraian Kontseilu Nagusi eta Orokorraren ezaugarriak azalduko dituen testua; izan ere, dokumentuetako informazioari lanaren egiturarekiko jarraikortasun izaera bat emate aldera, jatorrizko dokumentuek eskaintzen duten ordena aldatzea erabaki da.

<sup>74</sup> Quorum hori erdietsi ezean, Erregenteak bilkura ordubetez eten dezake, gutxiengo kontseilari kopurua present egon dadin itzaroteko, hori lortu ezean, bilkura desegiten du.

Bi eragile instituzional daude Kontseilu Nagusi eta Orokorraren zuzendaritzan, presidentzia eta idazkaritza. Kontseiluko presidentzia Kapitain Erregenteek eta Kontseilu Taldeetako presidentek osatzen dute, ganberaren egitaraua eta egutegia erabakitzen ditu, bai eta bilkuretan sortzen diren unean uneko eginbeharren antolaketa.<sup>75</sup> Idazkaritza hiru kontseilariz osatua dago eta presidentziaren sostengu funtzioa betetzen du, prozedura ezberdinak egiaztatuz, besteak beste, bilkuretako aktaren idazketa, bozketen emaitza, edota proposamen eta kontrol mekanismoak araudiarekiko lotesle diren.

San Marinoko Kontseilu Nagusi eta Orokorrak duen botere legegilea, lege, lege kualifikatu, lege konstituzional eta larrialdi legeen bidez gauzatzen du. Legegintza ekimena, kontseilariak, Estatu Kongresuak, Batzordeak, Gazteluetako Batzarrek eta 60 hauteslek gauzatu dezakete. Horretarako, nahikoa da artikulua bidez garaturiko lege-proiektu bat, haren helburuak, gastu aurreikuspena eta oinarri finantzarioa aurkeztea Kontseiluko presidentzian. Lehen irakurketan proposamenaren zergatiak azaldu ondoren edozein kontseilarik har dezake hitza.<sup>76</sup> Gero, presidentziak, aurreproiektuaren edukia lantzeko, eskuduna den batzordeari esleitzen dio testua.

Oro har, batzorde iraunkor bati esleitzen zaio testua, hark, aurreproiektuko artikulua bakoitzaren, emendakinen eta azken testuaren azterketa burutu dezan, horretarako beharrezko ikusten duen informazioa eskatuko du.<sup>77</sup> Lau batzorde iraunkor daude, horietako bakoitzak eskumen zerrenda zabal bat duelarik.<sup>78</sup> Testua landua izaten ari den bitartean, batzordeko gehiengoak txosten bat burutzen du, eta gutxiengoak beste bat hala nahi izanez gero, horiek ganberari helaraziko zaizkiolarik, batzordeak landutako testuarekin batera

Gero, bigarren irakurketa, eztabaida eta bozketa burutuko dira.<sup>79</sup> Lehenik artikuluz artikulua bozkatzeko da legea, ondoren osorik; onartua izan dadin, gehiengo sinplea beharrezkoa da. Lege kualifikatua gehiengo osoz onartu behar da; lege konstituzionala, bi hereneko gehiengo, baina gehiengo osoa soilik erdiesten badu, 90 eguneko epea irekitzen da, berrespenerako erreferendum bat burutu dadin; presidentziaren esku dagoen izaera horien esleipena da gainontzeko legeekiko ezberdintasun bakarra.

---

<sup>75</sup> Kapitain Erregenteak dira Kontseiluaren bilkuren moderazioa burutzen dutenak.

<sup>76</sup> Herri ekimeneko lege proiektuaren sinatzaileak, haien ordezkari den kontseilariaren bidez, proiektua aurkeztera gonbidatzen dira, Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren azterketa fasean.

<sup>77</sup> Aurrekontu Lege, Azken Txosten eta Finantza Lege, hauteskunde-lege edo gai instituzionalen inguruko legeen kasuetan, Kontseilu Nagusi eta Orokorraren bilkura osoak burutzen du aurreproiektuaren azterketa.

<sup>78</sup> Afera Konstituzional eta Instituzionalen Batzordea, Kanpo Harremanena, Aurrekontuaren Planifikazio eta Finantzaketa, eta, Higiene eta Osasunarena dira batzorde iraunkorrak. 15 kide dituzte eta ahal den heinean kontseilu talde bakoitzak ganberan duen pisua kontuan hartzeaz gaindi, ganberako gehiengo eta gutxiengoaren pisua ere islatzen dute, gainera, hautatuak izan diren zerrenda guztien ordezkari izan behar dute.

<sup>79</sup> Ezkutuko bozketan, ganberaren bi hereneko gehiengoak, lantzen ari den legeari larrialdi izaera ematen badiu, prozeduraren edozein unetan erabaki dezake Kontseiluak lege-proiektua bilkuran irakurri eta bozkatzeko, batzorde eskudunaren lana etenaz.

Proiektua onartu ondoren, Erregentziak eta Estatu Barne Idazkariak legea sinatu eta promulgatzen dute, testuak berak aurkakorik xedatzen ez badu, onarpenaren ondorengo hamabost egunetan aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, nahiz eta bost eguneko tarteazuzten den promulgaziotik indarrean sartu arte.<sup>80</sup>

Azkenik, Kontseilu Nagusi eta Orokorrak Errepublikako zuzendaritza politikoaren erabakimena gauzatzen du, funtzio horren ezaugarri nagusia, gobernu hautaketa eta kontrola delarik. 2019ko hauteskunde legearen erreforma aurretik, Kontseiluaren eraketa bilkuraren ondoren, hautagaitza edo koalizio garailea izendatzen zenak gobernu osatzen zuen, Kontseiluan programa onartuz eta Estatu Idazkariak izendatuz. Une horretatik aurrera, Estatu Kongresua erantzule bilakatzen da, Kontseilu Nagusi eta Orokorraren aurrean, bi botereen arteko harremana gauzatzeko mekanismoak Kontseiluaren esku egongo direlarik.

Galderen bidez, Kontseiluak edo kontseilariak, kontu ezberdinak argitzeko eska diezaioke gobernuari. Interpelazioaren bidez, herrialdearen egoeraren edo politikaren zenbait aspektuekin lotuak dauden gaien baitan dituen intentzio edo arrazoiak adieraz ditzan eskatu ahal zaio Estatu Kongresuari. Mozioen bidez, gai administratibo eta politiko batzuen baitako eztabaida sustatu nahi da; interpelazio baten eraldaketatik edo ganberako ordezkariengandik abiatu daiteke, eztabaida, mozia aurkeztu ondorengo lehen sei hilabeteetan burutu behar da, amaieran, moziari loturiko gaien egitarau bat onartu ahalko delarik.

Zentsura mozia, Estatu Kongresuaren edo Estatu Idazkari baten aurka aurkeztu daiteke, horien izendapenetik sei hilabetera. Erregenteari aurkeztu behar zaio, arrazoitua eta ganberako kideen bosten baten babesarekin, onartua izan dadin ganberako gehiengo osoaren babesa beharrezkoa izango delarik. Onartzen bada, Estatu Kongresu edo Kontseilariak dimititu egin beharko du; ukatzen bada, arrazoi berak dituen zentsura-moziorik ezingo da aurkeztu legealdian.

### *Hiru kasuen konparaketa*

Hiru ganberaren ezaugarriak azalduta, haien arteko konparaketa azkar bat egitea falta da. Bitxikeria modura aipatu daiteke, aztergai ditudan herrialdeetako hiru parlamentuek Kontseilu izena dutela, ziur aski, sorreran, estatu-buruen aholkularitza funtzioak betetzen zituztelako. Egitura aldetik ere, nahiko antzekoak dira, hirurek dutelarik ganberaren bilkuren moderazioa eta araudiaren interpretazioa burutzen duten presidentzia hautetsi bat; San Marinon, bere aldetik, idazkaritza batek presidentzia sustengatzen du, ziurrenik, ganberako presidenteak estatu-burutza funtzioak ere betetzen dituelako.

Jardunari dagokionean, hirurek dituzte bilkura mota ezberdinak, eta hiruren kasuan dira haietako gehienak publikoak; honakoan ere, San Marinoren kasuan ematen da

---

<sup>80</sup> Aurrez, Finantza Publikoen Kontrolerako Batzordeak legearen betekizunek finantza babesa dutela baieztatu behar du, eta Erregenteak Konstituzioarekiko bateragarria dela adierazi. Azken argitalpenaren aurretik, legearen idazkia, Errepublikako hainbat instituziotan erregistratzen da.



ñabardura esanguratsuena, bilkurak balizko jotzeko parte hartzaileen quorum bat beharrezkoa delarik. Bestalde, kontseilariak hautagaitza politikoen arabera taldeetan bilduta jarduten dute hiru ganberetan, nahiz eta taldeen izen teknikoak aldatu; gainera, talde horiek eragina dute legegintza prozesuetan esku hartuko duten batzordeen osieran.

Eskumen eta botereei dagokienean, Andorra eta San Marinoko ganberak daude alde batean, eta Monakokoa bestean. Hasteko, Andorra eta San Marinon, kontseiluak dira gobernuak hautatzen dutenak, ondoren, exekutiboa kontrolatzeko zenbait mekanismo dituztelarik eskura; Monakon, bere aldetik, Printzea da gobernuak hautatzen eta gerora kontrolatzen duena.

Bestalde, prozesu legegileetan ere ezberdintasunak ematen dira. Andorran, legearen abiapuntuan gobernuak esku hartzen du, izan ere, proposamen prozeduretan testua garatzeko irizpidea adierazten baitu. Monakon, gobernuak zein Printzeak prozesu legegilean esku hartzeko gaitasun handia dute, lege proiektuen lehen idazketa, esaterako, gobernuaren esku dago, baina ganberari helarazi aurretik Printzeak sinatu behar du, bestalde azken bozketaren aurretik gobernuak proiektua erretiratu dezake, eta azkenik, Printzeak proiektua berrestea beharrezkoa da.<sup>81</sup> San Marinon, bukatzeko, legegintza prozesuren garapena ganberaren esku dago, gobernuak ez duelarik aurreko bi kasuetan dituenen pareko eskumenik

## **6. HAUTESKUNDEAK ETA PARTE HARTZEA**

---

Atal honetan, Andorra, Monako eta San Marinoko ordezkariak ganberen hautaketa moduen bilakaera historikoa eta egungo hauteskunde sistemaren ezaugarriak azalduko ditut. Egungo ezaugarriak dagokienean, hautesle izateko baldintzei, hautagai izateko baldintzei, hautagaitzak aurkezteko baldintzei, barruti motei, formulei, hauteskunde-langei eta bozken egiturei erreparatuko diet.

### **Andorra**<sup>82</sup>

Andorrako Kontseilu Orokorra, hiru garai historiko izan dituen heinean, haren hautaketa moduek ere hiru garai nagusi izan dituzte. 1419tik 1866ra bitartean, bozka eskubidea menekoak zituzten etxeetako buruek soilik zuten; eta hautetsiak, Andorran bizi ziren 25 urtetik gorako gizon ezkondu, ohitura oneko eta elizarekin zorretan ez zeudenak soilik izan zitezkeen. Garai hartan, Kontseilurako bi edo hiru ordezkari hautatzen ziren elizbarruti bakoitzean.

1866ko Erreforma Berriak, etxe guztietako buruei hedatuko zien bozka eskubidea, bestalde, eta elizbarruti bakoitzean lau ordezkari hautatzen zirela ezartzen zuen. 1933an adin nagusiko gizonezko ororen sufragioa, 1970ean sufragio unibertsala eta

---

<sup>81</sup> Gainera, lege proposamenak onartzen diren kasuetan, hura lege proiektu bilakatzeko erabakia ere gobernuarena da.

<sup>82</sup> Jarraian Andorrako Kontseilu Orokorren hautaketa moduen bilakaera historikoa azalduko duen testua, instituzioaren web-orrian eskuragarri dauden Kontseiluaren historiari buruzko dokumentu ezberdinetan agertzen den informazioa uztartuz eratu da.

1973an emakumeen eskubide politiko pasiboak onartu ziren, baina Andorrako jaurgogituek hauteskundeetan zuten eragina oso nabaria zen. 1978an, Escaldes-Engordany elizbarrutia eratu eta Kontseilu Orokorrerako lau ordezkari hautatzeko eskubidea eskuratu zuenez, Kontseiluak egun duen 28 ordezkari edukiera erdietsi zuen.

1993ko Konstituzioan abiatzen da hautaketa sistemaren hirugarren etapa, Kontseilu Orokorrari egun duen estatusa emateaz gaindi, hauteskunde sistema lege kualifikatu bidez finkatzeko aukera ematen baitzuen, azken hori, urte berean onartuko zelarik. 1993ko 51. Lege Kualifikatuak ezarri zuen hauteskunde sistema berdintsu mantendu izan da azken urteetan. Hauteskunde legeko 1. artikulua, bozka eskubidea guztizko eskubide politiko eta zibilak dituzten 18 urtetik gorako andoratar guztiek dutela ezartzen du, bai eta haien arteko sufragio, aske, berdin, zuzen eta ezkutukoa.<sup>83</sup>

Hauteskunde legearen I. tituluko hirugarren kapituluak aipatzen dira hautagai eta hautagaitzek bete behar dituzten. Hautagai izateko baldintzak hautesle izateko berberak dira, honakoan ordea, sistema judizialeko, Gobernu eta udal biltzarretako karguak dituzten horiek, bai eta kartzela zigorra betetzen ari direnek ezin dute aurkeztu.<sup>84</sup> Hautagaitza bat aurkezteko, beharrezko dira elizbarrutiko edo maila nazionalako hautesleriaren %0,5aren sinadura, eta edonola ere hamar hauteslerena, zerrenda eratzea onartu duten hautagaien sinadura, eta, jokoan dauden kargu bezainbeste hautagai aurkeztea.

Hauteskunde legearen II. tituluko lehen kapituluak Kontseilu Orokorrerako hauteskundeetan bi barruti mota daudela ezartzen da. Lehena elizbarrutiak dira, zazpi elizbarrutietako bakoitzean bina ordezkari hautatzen dira, guztira hamalau osatuz. Bigarrena, herrialde osoak osatzen du eta barruti nazionala deitzen zaio, horretan beste hamalau ordezkari hautatzen dira. Hartara, Kontseiluko ordezkarien erdiak herrialde osoan hautatzen dira, eta beste erdia elizbarrutietan, formalki, elizbarrutien ordezkari gaitzen dutelarik.<sup>85</sup> Kapitulu berean, bi barruti mailetan ere, hauteskundeak igande berean burutzen direla ezartzen, bai etabozka-paper eta hautestontziak kolore ezberdina dutela.

Legearen II. tituluko bigarren kapituluak zerrenda itxi eta blokeatuko bozka ematen dela ezartzen da; elizbarruti hautagaitzen kasuan, bozka gehien erdietsi dituen zerrendako bikoteak lortuko dituelarik jokoan dauden kontseilari karguak, berdinketa balego, bien arteko bigarren itzulia egingo litzatekelarik, hurrengo igandean.<sup>86</sup>

---

<sup>83</sup> Legearen I. tituluko bigarren kapituluak hauteskunde erregistroaz aritzen da, haren arabera, andoratarrek, ez dute inongo zerrendatan izen eman beharrik bozkatzeko, zerrenda horien eraketa udalerrien esku dago, eta automatikoa da.

<sup>84</sup> Administrazio Publikoan karguak duten hautagaiak aurkeztu eta kontseilari izatea lortzen badute, behartuta daude Administrazio postuan lan-utzialdia eskatzera, kontseilari karguan dauden artean.

<sup>85</sup> Zentzu horretan, posible da hautagaitzak elizbarruti mailan edo maila nazionalan soilik aurkeztea, edota, bi mailetan aurkeztea. Elizbarrutietan aurkezten diren hautagaitzak bina hautagai eta bina ordezkari aurkeztera derrigortuak daude; barruti nazionalan aurkezten direnek, bestalde, hamalau hautagai eta hirunordezkari aurkeztu behar dituzte.

<sup>86</sup> Bigarren berdinketa bat emango balitz, zozketaz erabakiko litzateke.

Bestalde, barruti nazionaleko ordezkarien esleipenerako hondar handienaren formula baliatzen dela ere ezartzen da kapitulu berean.

Horretarako, lehenik, hauteskunde kuota kalkulatu da, jaulki diren bozka baliagarri guztiak 14 zenbakiarekin zatituta. Ondoren, hautagaitza bakoitzak erdietsi duen bozka kopurua hauteskunde kuotarekin zatitzen da, zatidura horrek adierazten duen zenbaki osoak adieraziko duelarik hautagaitza bakoitzaren behin behineko bozka kopurua. Esleitu gabe geratzen diren ordezkariak, ordezkariak lortu duten hautagaitzen arteko hondarra kontuan hartuz banatzen dira, horien lehentasuna hondar handienetik txikienera doalarik.<sup>87</sup>

Hauteskunde langari dagokionean, legeak ez du gutxiengo bozka kopuru edo ehunekorik ezartzen zerrenda bat ordezkarien esleipenean kontuan hartua izan dadin. Ikuspuntu praktikotik, ordea, elizbarrutietan lehen indar izatera iristen ez diren hautagaitzak, eta barruti nazionalen guztizko bozen hamalauren (%7,14) batera iristen ez direnak, automatikoki geratzen dira ordezkari esleipenetik at.

3. taulak, 2003-2018 urteen arteko hauteskundeek Andorraren kasuan utzitako datuak erakusten ditu. Alde batetik, hiritarren parte hartzeari loturiko datuak daude; bestalde, hauteskunde sistemaren eragin politikoari loturikoak.

**3. taula: hauteskundeak Andorran**

		2005	2009	2011	2015	Batez bestekoa
Parte-hartzea	Errolda	16.022	20.298	21.852	24.512	20.671
	Parte-hartzea (%)	12.880 (%80,40)	15.289 (%75,32)	16.192 (%74,09)	16.084 (%65,61)	15.111 (%73,48)
	Hautag. aur. (Ordezkatuak)	5 (3)	5 (3)	5 (3)	4 (4)	4,75 (3,25)
Hauteskunde sistemaren eragin indizeak	Gallagher Ind.	8,88	12,83	17,16	15,16	13,51
	Haut.-zatiketa	0,67	0,67	0,63	0,72	0,67
	HAKE	2,99	3,05	2,69	3,54	3,07
	Zatiketa-parl.	0,56	0,58	0,44	0,61	0,56
	APKE	2,28	2,4	1,78	2,59	2,26
	Murrizketa %	%23,85	%21,1	%33,89	%26,54	%26,345

Iturria: lanketa propioa. Datuen iturriak: eleccions.ad, electionguide.org, Inter-Parliamentary Union, Wikipedia.

Hauteskunde parte hartzeari dagokionean, batz besteko nahiko esanguratsua adierazten da, izan ere, azken urteetako lau hauteskunde prozeduratan, erroldatuen %73,48ak hartu du parte batez beste. Nahiz eta kontuan hartu behar den, erroldaren tamaina areagotuz joan den heinean, parte hartzaile kopuru absolutua ez dela asko igo, eta parte hartzaileen kopuru erlatiboa jaitsi egin dela, hau da, parte hartzeak behera egin duela. Aurkezturiko hautagaitzei dagokienez, oro har, aurkeztu izan diren

<sup>87</sup> Hondarra, hautagaitza bakoitzak erdietsi duen bozka kopuruari, lehen esleipenean erdietsi duen ordezkari kopuruaren eta hauteskunde kuotaren arteko biderkadura kenduta kalkulatu da.

hautagaitzen gehiengoak erdietsi izan du ordezkaritza denbora tarte horretako hauteskundeetan.<sup>88</sup>

Gallagherren indizea hauteskudez hauteskunde eta inolako konstantziarik gabe gorabeheratsua izan bada ere, batz bestea, hauteskunde sistema nahiko desproporzionala dela esan daiteke, izan ere, 13,51ko balioa 0tik nahikotxo urruntzen baita. Gainera, batz besteko %26,34ko murrizketak adierazten du, lau hauteskunde prozeduretan zehar, bozken laurden bat baino gehixeago geratu dela ordezkaritza erdietsi gabe. Litekeena da, azken hori, ganberaren erdia gehiago bidez hautatzeak eragina izatea, izan ere, automatikoki geratzen dira kanpoan, elizbarruti ezberdinetan irabazle izan ez diren hautagaitzen bozkek.

Datu horiek sustengatuz, HZ-ZP eta HAKE-APKE balio ezberdintasunak leudeke, izan ere, nahiz eta hauteskunde emaitzak bere horretan hartuz alderdi-aniztasun egoera deskribatu daiteken, azken hori ganberan ez dela hain ongi islatzen agerian geratzen da. Alde batetik, HZk alderdi-aniztasuna ozta-ozta adierazten du 0,67ko batz bestekoarekin, eta ZPren kasuan balioa txikiagoa da eta, oro har, ez du alderdi-aniztasuna ematen dela baieztatzeko langa gainditzen. Bestalde, HAKEn arabera, 3 alderdik erdietsi dituzte emaitza esanguratsuak batz bestea, baina APKEren arabera, 2k soilik erdietsi dute ganberan eraginkortasunez jarduteko moduko ordezkaritza.

### Monako<sup>89</sup>

1911n Monakoko Kontseilu Nazionala sortu zenetik, 1962ra arte, hauteskunde sistemak ez zuen aldaketa esanguratsurik izan. Sorreran, 12 kideko ganbera, 21 urtetik gorako gizonezko ororen sufragioz hautatzen zen, hautetsia izateko adina 25 urtetik gorakoa zelarik. 1962ko Konstituzioak, ganberaren eskumenak, ordezkari kopurua 12tik 18ra eta eskubide politikoak hedatu zituen, 21 urtetik gorakoen sufragio unibertsala ezarri zuen eta hogeita bost urtetik gorakoen hautetsi izateko eskubide unibertsala onartu zuen. 2002ra arte, bi itzuliko eta barruti bakarreko izen anitzeko gehiengo zerrenden sistema baliatu izan zen Kontseilu Nazionalerako hauteskundetan.

2002an, Monako Europar Kontseiluan onartua izan zedin ahalbidetzeko helburuarekin, hauteskunde-sistema erreformatu eta eguneratu zen, besteak beste, oposizioa ganberan ordezkaria izan zedin ahalbidetu zelarik.<sup>90</sup> Beraz, 2002ko apirilaren 9ko 1250. legeak erreformatu zen 1968ko otsailaren 23ko 839. legea da azken urteetan

---

<sup>88</sup> Kontuan izan behar da, alderdi edo talde politiko ezberdin ugari, hauteskudez hauteskunde hautagaitzari izena aldatzeko edota, batez ere elizbarruti mailan, tokian tokiko taldeekin koalizio zerrendak aurkezteko joera izan duela. Hauteskunde batzordeak *de facto* txertatzen du elizbarrutiko koalizioaren emaitza, alderdi nazionalaren emaitza orokorrean. Hartara, 2011ko hauteskundeetara aurkeztu zen Unió Lauredianaren kasuan salbu, aurkeztu eta ordezkaritza lortutako hautagaitza modura kontuan hartu diren, ia guztiak, maila nazionalerako alderdienak dira.

<sup>89</sup> Jarraian Monakoko Kontseilu Nazionalaren hautaketa moduen bilakaera historikoa azalduko duen testua, Monaco-Gate.com, Monacomania.com, Monte-Carlo.mc, Mairie.mc eta Kontseilu nazionalaren web-orrietan eskuragarri dauden Monakoren historiari buruzko dokumentuetan agertzen diren edukiak uztartuz eratu da.

<sup>90</sup> Denbora tarte oso horretan aldatu ez zen baldintza bat, bozka eskubidea izateko, gutxienez ere bost urteko monakoar hiritartasuna eduki beharra izan zen.

indarrean egon den hauteskunde sistema.<sup>91</sup> Bozka eskubidea, 18 urtetik gorako monakoar guztiek dute, legeak jasotzen dituen delitu jakin batzuegatik kondenatuak edo kartzela zigorpean daudenek salbu, eta zuzeneko bozka bidez gauzatzen da. Bozka erregistroa pasiboa da, eta komunaren, Gobernu Kontseiluaren eta Kontseilu Nazionalaren ordezkariak dituen batzorde batek kudeatzen du.

Hautagai izateko baldintzei dagokienean, beharrezkoa da 25 urtetik gora eta, edonola ere, bost urtez indarrean dirauen hiritartasun monakoarra izatea; Printzerriko sistema judizialeko, gobernuko, Koroaren Kontseiluko eta corpus kontsularreko goi karguek ezin dute hautagai izan, bestalde, Estatu Ministro eta Kontseilarien karguek ere ez. Hautagaitzak aurkezteko baldintzen artean, gutxienez 13 kideko zerrenda bat, hautagaiak alfabetikoki ordenatuak dituela aurkeztea, eta, hautagaiek, beren aldetik, izen-abizenak, lanbidea, finantza ordezkaria eta hautagaitzarekiko kidetasun adierazpenaren gisako datuak aurkeztu beharra nabarmentzen dira.

Bozkaren egiturari dagokionean, izen anitzeko zerrenda irekiei ematen zaie bozka, hau da, hautagaitza ezberdinen bozka paperetik hautagaien izenak ezabatu, eta beste hautagaitza batekoengatik ordezteko aukera dago. Barrutia, bere aldetik, herrialde osoak osatzen du, nahiz eta ordezkari esleipenerako bi formula baliatu. Zentzu horretan, ganberaren bi heren, gehiengo formularen bidez hautatzen dira, 16 hautagai bozkatuenak kontseilari bilakatzen direlarik automatikoki.

Gainontzeko 8 kontseilarien esleipenari dagokionean, hautagaitzek beharrezko dute gutxienez ere gutzizko bozken %5aren hauteskunde langa gainditzea horretan parte hartzeko. Ordezkari horien esleipena, hauteskunde kuota bidezko formula proportzionalaren bidez gauzatzen da, hauteskunde kuota, zerrenda bakoitzaren gutzizko bozken batura 8 zenbakiarekin zatituta erdiesten delarik. Ondoren, hautagaitza bakoitzak erdietsi duen bozka kopurua, kuotarekin zatitzen da, zatidura horrek adierazten duen zenbaki osoak adieraziko duelarik, hautagaitzari esleituko zaion ordezkari kopurua.<sup>92</sup> Oraindik ere ordezkariak geratuko balira esleitu gabe, batz besteko handienaren metodoa erabiliko litzateke horiek banatzeko.<sup>93</sup>

4. taulak ere, 2003-2018 urteen arteko hauteskundeek utzitako datuak erakusten ditu, honakoan Monakoren kasuan. Alde batetik, hiritarren parte hartzeari loturiko datuak daude; bestalde, hauteskunde sistemaren eragin politikoari loturikoak.

---

<sup>91</sup> Hain zuzen ere, lege erreformatu horretan azaltzen den informazioa moldatuz eratu da, jarraian Monakoko hauteskunde sistemaren ezaugarriak azaltzen dituen testua; izan ere, dokumentuko informazioari lanaren egiturarekiko jarraikortasun izaera bat emate aldera, jatorrizko dokumentuak eskaintzen duen ordena aldatzea erabaki da.

<sup>92</sup> Hauteskunde formula proportzional honen bidez ordezkari esleipena gauzatzeko orduan, zerrenda bakoitzak jaso duen gutzizko bozka kopurua, zerrenda horretako hautagaietako bakoitzak erdietsi dituen bozkek batus kalkulatu da, ondoren beharrezkoak izango diren kalkulu guztietarako kontuan hartuko den balioa ere, hori izango delarik.

<sup>93</sup> Hautagaitza bakoitzak erdietsi duen bozka kopurua, formula proportzionalaren bidez erdietsi dituen ordezkari kopurua baino unitate bat handiagoa den zenbakiarekin zatituta kalkulatu da, batz besteko hori.

## 4. taula: hauteskundeak Monakon

		2003	2008	2013	2018	Batez bestekoa
Parte-hartzea	Errolda	5.842	6.316	6.825	7.245	6.557
	Parte-hartzea (%)	4.658 (%79,73)	4.854 (%76,85)	5.083 (%74,48)	5.089 (%70,24)	4.922 (%75,19)
	Hautag. aur. (Ordezkatuak)	2 (2)	3 (2)	3 (3)	3 (3)	2,75 (2,5)
Hauteskunde sistemaren eragin indizeak	Gallagher Ind.	29,05	32,27	30,27	25,96	29,39
	Haut.-zaticeta	0,49	0,56	0,58	0,57	0,55
	HAKE	1,94	2,26	2,39	2,34	2,23
	Zaticeta-parl.	0,22	0,22	0,29	0,23	0,26
	APKE	1,28	1,28	1,4	1,29	1,31
	Murrizketa %	%34,17	%43,45	%41,44	%44,8	%40,965

Iturria: lanketa propioa. Datuen iturriak: Jorunal de Monaco, electionguide.org, Inter-Parliamentary Union, Wikipedia.

Hauteskunde parte hartzearen batez bestekoa %74,19 izateak, hura nahiko altua dela adierazten du. Hala ere, kontuan izan behar da, azken urteetan joera beherakorra izan duela balio erlatiboetan, hau da, erroldak gora egin duen heinean, hauteskunde parte hartzeak ere gora egin du, baina erroldarena baino eritmo motelagoan. Aurkezturiko hautagaitzei dagokienean, 2008an salbu, hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaitza guztiek erdietsi dute ordezkari-tza.

Gallagherren indizea, batzaz beste, %29,39koa da, hau da, 0tik nahiko urruti dago, eta hartara, hauteskunde sistema desproporzionala dela adierazten du. Bestalde, batzaz besteko, %40,96ko murrizketak argi uzten du hauteskunde prozeduretan zehar emandako bozken bi bosten geratu direla ordezkari-tza erdietsi gabe, horren arrazoia, ordezkarien bi heren gehiengo sistema bidez hautatzean ikusten dut, izan ere, ordezkari-tza postuen gehiengoaren kasuan, bozka gehiegi geratzen dira erabili gabe.<sup>94</sup>

HZ-ZP eta HAKE-APKE balio ezberdintasunek are argiago uzten dute. HZren batzaz besteko 0,55eko balioa ez da alderdi-aniztasun egoera bat dagoela esateko adinakoa, nahiz eta, hautagaitza berri bat aurkeztearekin batera, hura nabarmen areagotu; eta lau hauteskunde kasuan ere, ZP are urrunago geratzen da alderdi aniztasunetik, batzaz beste 0,26koa delarik. HAKEn balioaren kasuan ere, hirugarren hautagaitza aurkeztu izanak jauzi esanguratsua suposatzen izan dio, bigarren alderdiaren emaitza hobetuz, eta batzaz beste 2 alderdi finkatuz emaitza onekin. APKEren kasuan, ordea, hura nahiko egonkor mantendu izan da azken urteetan, alderdi bakarrak izan duelarik Monakoko ganberan eraginkortasunez jarduteko gaitasuna.

<sup>94</sup> Eta ondoren, proportzionalki esleitzen diren postuen kasuan, hauteskundeak irabazi ez dituzten hautagaitza oso gutxitako ordezkariak suertatzen dira hautatuak, jasotzen dituzten bozken zati handi bat gutxiesten delarik.

### San Marino<sup>95</sup>

San Marinoko Kontseilu Nagusi eta Orokorren historian, haren kideak hautatzeko egon izan diren erak ugariak izan dira. Hautetsia izateko ez zen baldintza espliziturik egon izan, nahiz eta denboraren joanean, sistema oligarkiko bat finkatu zen, botere ekonomikoa metatu izan zuten familiak komunitate politikoaren gorenean ezartzea medio, zeren finean, hura gidatzeko kultura eta formakuntza zuten bakarrak baitziren. Hautaketa sistemari dagokionean, XVII. mendera arte, *Arengo* asanblada zen kontseilariak hautatzen zituena, mende bereko estatutuak, San Marinoko udalari ematen ziolarik, kooptazioz, Kontseiluko kideak hautatzeko eskumena.

Nahiz eta litekeena den egun duen 60 ordezkari kopurua izatea historian zehar ganberak izan duena, denbora-tarte ezberdinetan kopuru hori aldatu izana ere litekeena omen da. Estatutuek bestalde, hauteskunde barruti sistema bat ezartzen zuten, 40 ordezkari hirikoak eta 20 landa eremukoak izan behar zirela ezartzen baitzuten. XVII.-XVIII. mendeetan zehar, ordea, oligarkiaren egonkortzea agerian utziko zuen aldaketa bat txertatu zen azken horretan, Kontseiluaren 20 kide nobleak, 20 hiritarrak eta 20 landa eremukoak izan beharra ezarriz.

1906an, *Arengo* asanblada bildu zen, sistema aldatu eta hauteskundeak ezarri edo Kontseilua bere horretan utzi erabakitzeke, lehen aukera gailendu zelarik. 1974ko Konstituzioak, Kontseilu Nagusi eta Orokorreko hauteskundeak arautuko zituen lege bat onartu beharra ezarri zuen. Azken urteetan indarrean egon den hauteskunde sistema, 1996ko hauteskunde legeak ezarri eta 2007, 2008 eta 2016ko erreformek moldatu zutena.<sup>96</sup> Bozka eskubidea 18 urtetik gorako sanmarinoar hiritar guztiek dute.<sup>97</sup> Gaixotasun mentalak, kartzela zigorrak, eskubide politikoen galera zigorrak edo eskubide politikoen aurkako delituen ondoriozko zigorrak dituztenek, hautesle eskubideak galtzen dituzte.

Bozketarako erregistroa pasiboa da eta Estatu Kongresu, sistema judizial eta Kontseilu Nagusi eta Orokorreko kidez osatua dagoen hauteskunde batzordeak kontrolatzen du. Hautagai izateko, bestalde, beharrezkoa da 21 urtetik gorako hiritar sanmarinoarra izan eta Errepublikan bizitzea; gainera, gobernuko kideek, polizia zerbitzuetako kideek,

---

<sup>95</sup> Jarraian San Marinoko Kontseilu Nagusi eta Orokorren hautaketa moduen bilakaera historikoa azalduko duen testua, instituzioaren web-orrian eskuragarri dauden Kontseiluaren historiari eta *Arengo* Asanbladaren historiari buruzko dokumentuetan agertzen diren agertzen diren edukiak uztartuz eta moldatuz eratu da.

<sup>96</sup> Hain zuzen ere, jarraian San Marinoko hauteskunde sistemaren ezaugarriak azaltzen dituen testua, *Raccolta Coordinata delle Norme in Materia Elettorale*, dokumentuan eskuragarri dagoen edukia moldatuz eratu da, horretan, 1996ko urtarrilaren 31ko 6. legearen edukia, eta hark, 2007ko maiatzaren 11ko 1go lege kualifikatuaren, 2008ko abuztuaren 5eko 1go lege kualifikatuaren, 2016ko martxoaren 17ko 1go lege kualifikatuaren eta 2016ko abuztuaren 23ko 3. lege kualifikatuaren bidez izan dituen erreformek utzi dutena jasotzen baita, guztiek ere, hauteskunde legea finkatzen dutelarik; dokumentuak duen egitura kontuan hartuta, ordea, eta dokumentuko informazioari lanaren egiturarekiko jarraikortasun izaera bat emate aldera, jatorrizko dokumentuak eskaintzen duen ordena aldatzea erabaki da.

<sup>97</sup> Sanmarinoar hiritartasuna belaunaldi bat baino atzerago galdu zuten familien ondorengoen kasuan, Sanmarinoar hiritartasuna berreskuratu eta hiru urtera berreskuratzen dute bozka eskubidea.

barne eta kanpo egitura kontsularretako kideek, eta, magistratu eta abokatu fiskalek, ezin dute hauteskundeetan aurkeztu. Bestalde, haien artean senidetza- edo ezkontza-harremanak dituzten bi pertsonak ezin dute kontseilari izan, eta 2013az geroztik, Gazteluetako Kapitain eta biltzarkideek ere ez.

2007ra arte, 60 hautesleren babesak eta gutxienez 10 hautagai behar ziren zerrenda bat aurkezteko, urte horretako erreformaz geroztik, 90 hautesleren babesak eta gutxienez 12 hautagai dira beharrezkoak.<sup>98</sup> Urte berean, koalizioak osatzeko asmoa duten zerrendek bete beharreko baldintzak ezarri ziren, koalizioaren eraketa adierazpena, legealdi osorako gobernu-gehiengo bat eratzeko borondate adierazpena eta koalizioaren gobernu programa aurkeztu beharko zituztelarik aurrerantzean. Azkenik, gehienez ere 60 hautagai eta zerrenda osatzeko haien onespina aurkeztea eta zerrenda eta koalizioak identifikatzeko lagungarri izango den irudi bat aurkeztea beharrezkoa da.

San Marinoko Kontseilu Nagusi eta Orokorren hauteskunde sistemak, barruti bakarria baliatzen du. Bozkaren egiturari dagokionean, zerrenda itxi eta desblokeatuei ematen zaie bozka, estatu bozka-paper bakarrean. Bozketan, zerrenda edo koalizio ezberdinen irudia edo haiek biltzen dituen laukia markatzen dute hautesleek, ondoren, zerrenda bakoitzeko hautagaien artean bat izendatzeko aukera dutelarik. Zerrenda edo koaliziorik markatu gabe, hautagaien bati izendapenen bat jasotzen duten bozken kasuan, izendaturiko hautagaiaren zerrenda bozkatu dela kontsideratuko da.

Bozken kontaktetan, zerrenda bakoitzari esleituko zaizkion ordezkariak erabakitzeak kontuan hartuko diren zerrenda bakoitzak jasotako guztizko bozkek kontaktzen dira lehenik, ondoren, esleipen horiek beteko dituzten hautagaiak izendatzeko, hautagai bakoitzari eman zaizkion lehentasun bozkek kontaktzen dira. Ondoren, zerrenden guztizko bozkei formula proportzional bat aplikatzen zaie, D'Hont zatitzaile seriearekin zatitzen direlarik (1, 2, 3, 4...) hautagaitza bakoitzaren emaitzaren 60 zatidura lortzen diren arte.

Hautagaitza guztien zatiduren artean 60 handienak biltzen dituzten hautagaitzei esleituko zaizkie ordezkariak, bakoitzak duen zatidura kopuruaren arabera.<sup>99</sup> Esleitzen diren ordezkariak karguak betetzeko, zerrenda ezberdinetako hautagaiak jasotako bozka kopuruaren arabera ordenatu, eta zerrenda bakoitzari dagozkion ordezkariak bezainbeste hautagai aukeratuko dira ordezkari izateko.

2007ko erreformaz geroztik, bestalde, ordezkari esleipenean parte hartzeko, hauteskunde langa bat gainditu beharra ezarri zaie hautagaitza ezberdinei. Langa hori kalkulatzeko, hauteskundeetara aurkezturiko hautagaitza kopurua 0,4rekin biderkatzen da, eragiketa horren emaitzak ezarriko duelarik hautagaitza bakoitzak gutxienez erdietsi behar duen bozka baliagarrien ehunekoak. Dena den, kalkulu horren

---

<sup>98</sup> Bestalde, 2007tik aurrera, zerrendako kideen bi heren baino gehiagok ezin du genero berekoa izan.

<sup>99</sup> Koalizioak osatzen dituzten zerrenden kasuan, horiek zerrenda modura lortu duten emaitza soilik hartzen da kontuan; koalizioei ematen zaizkien bozak, hauteskudeen garaile bat izendatzeko prozeduretan soilik hartuko direlarik kontuan.



emaitza edozein dela ere, hauteskunde langaren guztizko balioak ezingo du bozka baliagarrien %3,5aren balioa gainditu.

2007ko erreformak, zerrenda edo koalizio garailea izendatzeko sistema bat txertatu zuen hauteskundeetan, sistema proportzionalaren ondorioz barreiatzen zen ordezkartzaren forma zuzendu eta egonkortasun faktore bat txertatuz. 2019ko erreformara arte, garaile izendatzen den zerrendari, 35 ordezkari iristeko beharrezko dituen ordezkariak ematen zitzaizkion, lehen ordezkari esleipenean baliagarriak suertatu izan ziren zatidura txikienak lortu zituzten hautagaitza ez irabazleei kentzen zitzaizkielarik. Zerrenda bat garaile izendatzeko ordea, bazitekeen hauteskunde bigarren itzuli bat deitu beharra suertatzea, kasu horietan, lehen itzulian bozkatuenak izandako zerrenda edo koalizioek soilik hartzen zuten parte bigarren itzulian.

5. taulak ere, San Marinon 2003-2018 urteen artean burutu izan diren hauteskundeek utzitako datuak erakusten ditu. Alde batetik, hiritarren parte hartzeari loturiko datuak daude; bestalde, hauteskunde sistemaren eragin politikoari loturikoak.<sup>100</sup>

5. taula: hauteskundeak San Marinon

		2006	2008	2012	2016	Batez bestekoa
Parte-hartzea	Errolda	31.759	31.834	33.106	33.985	32.671
	Parte-hartzea (%)	21.815 (%71,84)	21.806 (%68,48)	21.138 (%63,85)	20.276 (%59,66)	21.259 (%65,96)
	Hautag. aur. (Ordezkatuak)	9 (9)	7 (7)	11 (8)	11 (8)	9,5 (8)
Hauteskunde sistemaren eragin indizeak	Gallagher Ind.	2,1	3,81	4,97	3,19	3,52
	Haut.-zaticeta	0,76	0,76	0,85	0,86	0,81
	HAKKE	4,22	4,24	6,52	6,99	5,84
	Zaticeta-parl.	0,74	0,75	0,81	0,84	0,78
	APKE	3,88	3,97	5,23	6,14	4,8
	Murrizketa %	%8,16	%6,32	%19,71	%12,1	%11,57

Iturria: lanketa propioa. Datuen iturriak: Inter-Parliamentary Union, elezioni.sm.

Honakoan, parte hartzearen batz bestekoa, %65,96, ez da aurrekoetan bezain handia, eta gainera, errolda areagotuz joan den heinean parte hartzeak behera egin du balio absolutu eta erlatiboetan. Aurkezturiko hautagaitzei dagokienean, azken urteetan zortzina hautagaitzak erdietsi dute ordezkari batez beste, nahiz eta kontuan izan behar den, hamar hautagaitzatik behera aurkeztu diren urteetan guztiek erdietsi dutela ordezkari eta hamaika aurkeztu izan direnetan, hiruna geratu direla kanpoan.

<sup>100</sup> 2016ko hauteskunde kasuan, lehen itzuliak utzi zituen emaitzak hartu ditut oinarri, izan ere, bigarren itzuliaren ondoriozko ordezkari esleipenaren oinarrian, hautagaitza batzuen lehen itzuliko emaitza eta beste bakar baten bigarren itzuliko ere hartu beharko lirake bozka-ordezkari harremana kalkulatzeko oinarri. Gainera, parte hartzean alde handiak eman ziren lehen eta bigarren itzulien artean. Bestalde, nahiz eta aurreko bi hauteskundeetan sistema indarrean egon, 2016an soilik deitu behar izan zen bigarren itzulia.

Gallagher indizeari erreparatuz gero, 3,52ko balioak desproporzionaltasun maila nahiko baxua adierazten du, urtez urte gorabeheratsu mantendu bada ere, inoiz ere ez duelarik 5eko balioa gainditu. Bestalde, murrizketaren batz besteko %11,57ko balioak argi uzten du hauteskunde prozeduretan, oro har, bozka gutxi geratzen dela ordezkarietza erdietsi gabe.

Kasu honetan ere, HZ-ZP eta HAKE-APKE indizeen arteko konparaketek, aurreko paragrafoan esandakoa sustengatzen dute. Zentzu horretan, ZHK batz beste adierazten duen 0,81ko balioak, hauteskundeetan alderdi-aniztasuna eman izan dela adierazten du, zeina ondoren ganberan islatzen den ZPren 0,78ko batz besteko balioak adierazten duen bezala. Nahiz eta alderdi-aniztasuna islatu, HAKEn eta APKEren artean hauteskunderik hauteskunde eman diren aldeek, argi uzten dute, oro har, hauteskunde emaitzen arabera egokituko litzatekena baino hautagaitza bat gutxiago bilakatzen dela eraginkor ganbera jardunean.

### Hiru kasuen konparaketa

Hiru ganberen osaera erabakitzeke sistemen ezaugarriak eta horien eraginak azalduta, haien arteko konparaketa azkar bat egitea falta da. Hiru herrialdeetako errolda kontuan hartuta, parte hartze nahiko altua ematen dela esan daiteke, nahiz eta San Marinon ematen den parte hartzea beste bi herrialdeenetatik hamar bat puntu azpitik egon. Bestalde, hiru kasuetan ere, azken urteetako hauteskunde parte hartzearen joera beherakorra dela argi geratzen da.

Jarraitzeko, hautagaitzak aurkezteke baldintzak kontuan hartuta, Andorra eta Monakon zentzuzko kopuru bat aurkezten den heinean, San Marinon kopuru nahiko handia aurkezten dela esan daiteke. Hautagaitzek erdietsitako ordezkarietza dagokionean, hiru kasuetan, batz beste, aurkezturiko hautagaitza guztiek lortu dute ordezkarietza.

Huteskunde sistemek ordezkarietzarengan dituzten eraginei dagokienean, San Marino alde batean legoke, eta Andorra eta Monako bestean. Hiruretan sistema irekiena San Marinokoa da zalantzarik gabe, desproporzionaltasun eta murrizketa indize baxuenak izateaz gandi, hauteskunde eta ordezkarietza esleipen emaitzen arteko desoreka txikiena ere baduelako.<sup>101</sup> Beste muturrean, Monako legoke, zeinean murrizketa eta desproporzionaltasun handienak emateaz gandi, hauteskunde emaitza-ordezkarietza esleipen harreman desorekatuena ere ematen den. Eta azkenik, Andorra, bi kasuen tartean baina Monakorengandik gertuago legoke, nahiz eta azken horren balioetara iristen ez den, desproporzionaltasun eta murrizketa nahiko handiak ematen baitira.<sup>102</sup>

---

<sup>101</sup> Zentzu horretan, litekeena da, hain herrialde txikia izanda eta hauteskunde sistema irekia duela kontuan hartuta, hauteskunde sistemaren erreforma bidez txertaturiko zuzenketek, zeintzuek, bozka-ordezkari harreman proporzionala iragazten duten, alderdi sistema, eta ondorioz, ganberako jarduna egonkortzeko eta lausotzeko helburua eduki izana.

<sup>102</sup> Hauteskunde emaitza-ordezkarietza esleipen harremana, bere aldetik, zertxobait orekatuagoa da Andorran, Monakon baino

## **7. ONDORIOAK**

---

Lan honen bidez, instituzio baten hiru eredu ezberdin aztertu eta deskribatu ditut. Izan ere, hiru ganberak, testuinguru nahiko ezberdinetan sortu eta garatu izan diren parlamentuak dira. Lehena, Andorrakoa, kanpo-interesen agintaritzapean zegoen lurralde batean, tokiko interesen partekatzea eta erabakimenaren gauzatzea sustatzeko asmoarekin sortu zen. Bigarrena, Monakokoa, narritatua zegoen gizartea lasaitze aldera buruturiko kontzesio bat izan zen. Azkena, San Marinokoa, askatasun eta autonomia balioen baitan elkartu eta garaturiko komunitate baten jardunaren ondorio izan zen.

Zalantzarik gabe, Andorra eta San Marinoko parlamentuek historia luzeagoa dute, eta instituzio modura, eragin nabarmenagoa izan dute herrialdeen garapenean. Kontseilu Orokorrak eta Kontseilu Nagusi eta Orokorrak, eskumen askoz ere zabalagoak izan dituzte, eta gainontzeko botereekiko harreman askoz ere orekatuagoan jardun dute, Kontseilu Nazionalak baino. Hain zuzen ere, Andorra eta San Marinoko ganberak herrialde horietako biztanleriaren subiranotasun eta erabakimenaren adierazpena izan diren heinean, Monakokoa printzeen emakidatxo bat izan da, haiekiko sinesgarritasun eta fideltasuna mantendu zedin.

Lanaren hasieran planteaturiko hiru hipotesiei dagokienean, lehen hipotesia betetzen dela esango nuke. Lehen azpi-hipotesian planteatzen denak, Monakoko ganbera eta printzearen arteko harremana azaltzeko balio du. Izan ere, Printzea izan zen Kontseilu Nazionalaren sorrera sustatu zuena, eta oro har, ganberari zein eskumen eman erabaki izan duena. Hasieran, esaterako, ganberako presidentea hautatzen zuen Printzeak, eta mende erdi pasa arte, ez zion asanblada hautetsi izaera aitortu. Egun, nahiz eta Kontseilu Nazionalaren eskumen eta bestelako ezaugarriak eguneratu izan diren, Printzea ari gainjartzen zaiolakoaren adierazle da, Printzeak eta haren aurrean erantzule den gobernuak prozesu legegilean duten eskumena, besteak beste, zeinak, ganberari botere legegilea era autonomo eta eraginkorrean gauzatzea asko zailtzen dion.

Beste muturrean, bigarren azpi-hipotesia frogatuz, San Marinoren kasua dago, zeinean, estatu-burua ere Kontseilu Nagusi eta Orokorrak hautatzen duen, nahiz eta Errepublikako instituzio ia guztiekin harreman zuzenean egon. Are gehiago, estatu-burutza betidanik egon izan da erabakimen politikoa gauzatzen zuen ganbera edo asanbladaren pean, eta betidanik eraberritu izan da denbora tarte laburren buruan, botere-metaketa ekiditeko printzipioan oinarrituta. Honakoan, Kapitain Erregenteek, ikuskaritza prozesua betetzen dute, oro har, ganberaren jardunarekiko, gehien bat, prozedura administratiboak eta Konstituzioarekiko bateragarritasuna zaintzen dutelarik. Bukatzeko, San Marinoren kasuan, gobernu kontrola ere, Kontseilu Nagusi eta Orokorri dagokiolakoa da, ganberak duen botere esanguratsuaren beste adierazle bat.

Andorraren kasua, bere aldetik, bien artean legoke nolabait, izan ere, aspektu sinbolikoan esaterako, herrialdea printzerri bat da formalki, nahiz eta printze (edo

koprintze) diren horiek ez duten Monakokoaren pareko eskumenik; eta era berean, Koprintze karguak ez du San Marinon Erregente karguak ganberarekin duen loturarik. Estatu-buru modura dituzten eskumenei dagokienean, badira, ganbera edo gobernuaren eskarien berrespenak direnak, edota haien guztizko eskumenak direnak. Dena den, Andorrako ereduak, askoz ere gertuago dago San Marinokotik Monakokotik baino; bi estatu buru dituelako, estatu buruek prozesu legegilearen ikuskaritzan jarduten dutelako, edota Konstituzioarekiko bateragarritasuna egiaztatu beharra dutelako.<sup>103</sup>

Bigarren hipotesia, bere aldetik, kasu gehienetan ez da betetzen. San Marinoren kasua, lehen azpi-hipotesiaren zentzuaren aurka doa honakoan, Andorra eta Monakokoarekin alderatuz, hiritarren hauteskunde parte hartzea baxuena delako, nahiz eta Kontseilu Nagusi eta Orokorraren eskumenak zabalagoak izan beste bi parlamentuenak baino. Monakoren kasua, bere aldetik, bigarren azpi-hipotesiaren zentzuaren aurka doa, izan ere, Kontseilu Nazionalaren eskumenak, hiru parlamentueneren artean mugatuenak dira zalantzarik gabe, baina era berean, hauteskunde parte hartze altuena ematen den herrialdea Monako da. Andorraren kasua, honakoan, hipotesiaren bidez planteatzen nuen zentzuaren alde doa, baina, aztertutako kasuen artean bakarra da, Kontseilu Orokorrak botere nabarmena du Andorran, eta era berean, hauteskunde parte hartzea nahiko gertu dago Monakon ematen denetik. Hiru kasuetan ere, kontuan izan behar dena, ordea, hauteskunde parte hartzeak azken urteetan izan duen joera beherakorra da, nahiz eta parte hartzea altu samarra izan.

Hirugarren hipotesia ere, ez da kasu gehienetan betetzen. Kasu honetan, Monako da lehen azpi-hipotesiaren zentzuaren aurka doana, zeren esan bezala, Kontseilu Nazionalaren boterea oso mugatua da, eta hauteskunde sistemaren eraginek, bere aldetik, argi uzten dute hura hiruretan murriztaileena dela, desproporzionaltasun eta murrizketa balio altuenak erakusten dituztelako. San Marino, berriz ere, Monakorekiko beste muturrean dago, Kontseilu Nagusi eta Orokorraren eskumenak anitzak baitira, eta hauteskunde sistema irekiena duelako, desproporzionaltasun eta murrizketa urriek erakusten duten modura. Andorra, honakoan ere, nolabaiteko salbuespena da, izan ere Kontseilu Orokorrak eskumen esanguratsuak ditu, eta hauteskunde sistemaren eragin indizeek, nahiz eta Monakoren kasukoetatik urrun, desproporzionaltasun eta murrizketa nabarmena ematen dela erakusten baitute; horrela, hipotesia planteatzeko baliaturiko zentzua betetzen delarik.

Hauteskunde sistema ezberdinen azken urteetako egitura eta haien ondorioak azaltze aldera, aipatu beharra iruditzen zait, historian zehar erabilitako ganberak hautatzeko prozedurek haien arrastoa utzi dutela; parlamentuen botere eta funtzio historikoek, egun dituztenengan arrastoa utzi duten gisara:

---

<sup>103</sup> Bestalde, badira bitxikeriak diren beste zenbait ezaugarri, baina era berean estatu ezberdinek boterea antolatzeak duten eren adierazle direnak. Hiritartasun- eta grazia-eskubideen aitortza, Printzearen eskumen dira Monakon, eta Kontseilu Nagusi eta Orokorrarena San Marinon.

- Andorraren kasuan, esaterako, kontseilarien erdia elizbarrutietan hautatzen da, eta formalki, elizbarrutiak eta haien interesen ordezkariak gauzatzen dute kontseilari horiek. Lurralde Kontseiluaren sorreran, eta gerora Ibarretako Kontseilu Orokorra izango zenaren bilakaeran, ganberan jarduten zuten kontseilari guztiek gauzatzen zuten elizbarruti ezberdinen eta haien interesen ordezkariak.
- Monakon indarrean dagoen hauteskunde sistemak, bestalde, gehiengo azkarren sorrera eta hautagaitza irabazlearen egonkortasuna ahalbidetzen du, horrela, ganberaren jarduna egonkorra eta moderatua izan dadin erraztuz, eta instituzioaren hasierako sinbolikotasun izaera mantenduz.
- San Marinon, 1990eko hamarkadan ezarri ziren azken urteetako hauteskunde sistemaren ezaugarri nagusiak, une hartan nahiko eraberritzaileak izan zirelarik. Kontuan izan behar da, ordea, historian zehar, Kontseilu Nagusi eta Orokorra hautatzeko sistemak oso murriztaileak izan direla, eta are gehiago, herrialdeak errotuak omen dituen askatasun balioen gainetik, oligarkia baten egonkortzea ahalbidetu zutela. Zentzu horretan, 1990eko hamarkadan burutu zen hauteskunde sistemaren berrikuntza mugatu, eta garai zaharretara gerturatzeko balio izan duten erreformak burutu izan dira azken urteetan, ordezkariaren ahalbidetzen zen aniztasuna mugatu izan delarik, gehiengo egonkor bat sortzeko sistema bat finkatuaz.

Lanaren hasieran, bestalde, zenbait helburu planteatzen nituen, horiei dagokienean, balorazio positiboa egiten dudalarik. Hasteko, azpi-helburuak bete ahal izan ditut, herrialdeen sorrera eta bilakaera historikoa, bai eta ganberen sorrera, bilakaera eta egun duten boterea aztertu eta deskribatu ahal izan baititut. Bestalde, hauteskunde sistemak eta haien eraginak bai eta parte hartzea ere deskribatu ahal izan dut. Hartara, planteatzen nuen helburu nagusia ere bete dudala esateko moduan ikusten dut nire burua. Horri jarraiki, argi geratu zait hiru kasuak ere ezberdinak direla, eta parlamentuek, herrialde bakoitzaren testuingurua eta tradizioa kontua garrantzia dutela.

Andorran, Kontseilu Orokorra, historikoki herrialdeetik kanpora bizi izan diren agintarien boterea zalantzan jarri gabe, bertakoen subiranotasuna adierazi eta borondatea betearazteko balio izan duen organoa izan da, herrialdeko lurralde edo ibar ezberdinetako biztanleriaren interesak planteatu eta adostasunak erdietsiz, lurraldearen garapena ahalbidetu delarik. Egun ere, haren eskumenei erreparatuta, herrialdeko sare instituzionaleko eragile garrantzitsua da; bestalde, hiritarren parte hartzeari oro har erreparatuta, haientzat ere instituzio garrantzitsua da, nahiz eta garrantzi horren hautemana behera doan gizartean.

Monakon, bere aldetik, Kontseilu Nazionala ez da printzerriko sare instituzionaleko eragile hain boteretsua, eta are gutxiago beste bi herrialdeetako ganberekin alderatuz. Hala ere, Monakoko sistema politikoarentzat berebizikoa den instituzio bat da, sistema politikoaren egonkortasuna ziurtatzen duelako, hiritarrei haren osieran parte hartzen utziaz eta botere legegilararen zati bat ere gauzatuaz. Zentzu horretan, Kontseilu

Nazionalak, hiritarrek izan ditzaketen sistema politikoaren legitimotasunarekiko zalantzak galgatu, eta gizartean eraginkortasun sentimendua sustatzearen funtzioa betetzen du, zeina, Monakoko instituzioak eta haien botere antolaketa mantentzeko beharrezkoa iruditzen zaidan.<sup>104</sup>

San Marinon, azkenik, Kontseilu Nagusi eta Orokorra, Errepublikako instituzio garrantzitsuenetako bat da, haren bilakaera historikoari eta egungo egoerari erreparatuz. Honakoan, ordea, hiritarren parte hartzeak, haiek ematen dioten garrantzia erlatiboagoa dela ematen du aditzera. Zentzu horretan, historian zehar hiritarrek Kontseilu Nagusi eta Orokorren osaeran parte hartzeko mugak tarteko, baliteke hauteskunde bidezko parte hartzearen kultura hain errotua ez egotea Errepublikako biztanleriarengan.

Proporzionaltasuna zuzendu eta irabazle bat izendatzeko sistemak ere azal dezake hauteskunde parte hartzeak azken urteetan izan duen beherakada, izan ere, gehiengo azkarrak sortzea ahalbidetuz, exekutiboaren interesak ganberan erraz gailentzea ere eragin dezakeelako, ganberan egon daiteken ideia eta ekimen aniztasuna bigarren plano batera igaroaraziaz, eta funtsean, hiritarren arteko bereizketa zuzena ahalbidetuaz. Hori hala izanda, parlamentuaren garrantzia asko erlatibizatuko litzateke.

Hain zuzen ere, Veenendaalek (2013a, 2020) esaterako, lanaren hasieran buruturiko bibliografiaren berrikuspenean jasotako mikroestatuaren eta demokraziaren arteko harreman positiboaren ideia zalantzan jartzen du, mikroestatuaren gizarte homogeneoetako portaera politiko pertsonalistak eta lehia ez ideologikoaren testuinguruan, exekutiboaren gailentzea ahalbidetzen delako argudioan oinarrituta. Gogoetaren puntu honetan, beraz, sistema politikoaren ageriko irudia eta haren jardun eraginkorra bereiztea beharrezkoa da, eta lan honek bigarren hori egiten ez duela onartzea ere bai.

Dena den, lana garatzeko unean izan ditudan baliabide eta gaitasunak kontuan hartuta, posible nuen eta lan oso eta aberatsena egin dudala iruditzen zait. Horri jarraiki, aztergai izan ditudan parlamentuen kasuetan, herrialdeen bilakaera eta botere antolaketarako tradizioei erreparatuta, parlamentu guztiek garrantzia dutela esango nuke. Andorra eta San Marinoko ganberak sistema politikoaren garapenean paper garrantzitsua jokatu izanaz gaindi, haren egungo jardunean ere eragina dutelako. Monakokoak, bere aldetik, sistema politikoaren jardun eta garapenean pisu gutxiago izan badu ere, sistemaren iraunkortasunaz aritzean, berebiziko elementu bat da.

Azkenik, unibertsitateko ikasketa prozesuaren bukaera izan dudana lan honen bidez, ezer gutxi ezagutzen nituen hiru herrialderen inguruan zerbait gehiago ezagutu eta bestelako errealitate batzuetara zertxobait hurbildu ahal izan dut. Horregatik espero dut lana irakurtzen duen eta gaiaren inguruan askorik ez dakien ororentzat ere antzeko

---

<sup>104</sup> Joël-Benoît d'Onorio, Portalis Institutuko zuzendariak dio, Monakoko sistema politikoak, monarkia aktibo bat eta demokrazia eraginkor bat uztartzen dituela (Bariéty, 2018)

baliagarritasuna izatea. Bukatzeko, lana irakurri eta gaiarengan interesatzen den edonor animatzen dut lana iruzkindu eta hobetzera.

## GLOSARIOA

---

Atal honetan, lanean zehar aipatu ditudan zenbait kontzepturen azalpenak edota jatorrizko izenak zerrendatuko ditut, laneko atalen eta azpi-atalen ordena kontuan hartuta.

### 4. atala: Andorra

**Andorraren Banaketa Itunak:** banaketa itunak, Erdi Aroko Frantzia hegoaldean asko erabiltzen ziren, oro har, Elizari loturiko alde batek eta nobleziari loturiko beste batek sinatzen zituzten, Elizak kontrolatzen zituen esparruetan Kapeto leinuaren monarkia txertatzeko balio izan zuten. Andorraren kasuan, bi sinatu izan ziren Urgelleko Elizbarrutiaren eta Foixeko leinuaren artean. Lehen Banaketa Ituna, katalanez, *Primer Pareatge*, 1278an sinatu zen ibarren estatusa definitzeaz gaindi, bi jaunak onartu eta haiek lurraldearengan zituzten eskubideak finkatu zituen. 1288an, Bigarren Banaketa Ituna sinatu zen, katalanez *Segon Pareatge*; horretan, jaun bakoitzari ezartzen zitzaion, besteak gotorleku edo gaztelu bat eraiki nahi bazuen, horretarako baimena eman beharra; bestalde, ordezkari edo notario bat izendatzeko eskubidea ere ematen zitzaion.

**Kontseilu Exekutiboa:** katalanez, *Consell Executiu*, 1980ko hamarkadan, Andorrako gizarteak eskatzen zituen erreforma eta berrikuntzen testuinguruan sortu zen, gobernu funtzioa bete izan zuen 1993ko Konstituzioa onartu zen arte. Kontseilu Exekutiboaren sorrerarekin batera, Koprintzeek eta Kontseilu Orokorrak nolabait eta halamoduz partekatzen zuten botere exekutiboa izango zuen eragile instituzional bat eratu zen, Kontseilu Orokorrak zituen eskumen exekutiboak galtzen zituelarik, eta Koprintzeek zituztenak mugatzen zirelarik. Exekutiboarekin batera, Kode Penal eta Administrazioaren Kodea onartu zituzten Koprintzeek.

**Urgelleko Elizbarrutia:** katalanez, *Bisbat d'Urgell*; IV. mendean sortua, Eliza Katolikoaren egitura administratiboari loturiko erakunde bat da, Kataluniako Lleida eta Girona probintzietan, eta Andorran jarduten duena, Tarragonako Artxidiozesiaren menpe, Eliza Katolikoaren eskumen eta gaitasunak gauzatuz. X. eta XIII. mendean artean, jaurgu jabetza ugari pilatu zituen; bestalde, Andorraren jaurgu eskubideak aitortu izan zaizkio askotan. 1278tik, haren burua, La Seu d'Urgelleko edo Urgelleko Apezpikua, Andorrako Koprintzeetako bat da.

### 4. atala: Monako

**Guelfi eta ghibellini:** XII. mendean Erromatar-Germaniar Inperio Sainduko Welfen eta Hohenstaufen leinuen jarraitzaileak izan ziren, hurrenez hurren; mendearen bigarren erdian, haien arteko gatazka Italiara hedatu zen; Aitasantutzaren eta Enperadore Germaniarraren arteko gatazka da haien testuingurua, lehenak *guelfien* babesa jasoko zuen, eta bigarrenak *ghibelliniena*. Grimalditarrak *guelfien* aldekoak ziren, eta azken

horiekin batera Genovatik kanporatu zituztenean, Monako hartzeko saiakerak abiatu zituzten.

**Iraultza Monegaskoa:** frantsesez, *Révolution Monégasque*, 1910ean suertatu ziren, eta monakoarrak haien Printze Albert I. arekiko asalatu zituen gertaera serie batek osatzen dute; iraultzaren aurrekari garrantzitsuena langabezia izan zen, ez baitzegoen landatu zitekeen lurrik edota lantegirik, eta Printzeak kasinoetan lan egiteko debekua ezarri zien bere menekoei; gainera, herrialdea europar moralaren estolderia modura zen hartua, eta Printzeak Frantzia gastatzen zuen dirua; hartara, Monako Errepublikak bilakatuko zutelako mehatxupean, Konstituzioa eta Parlamentua eskatu zituzten monakoarrek, bestalde, kasinoen monopolioaren amaiera, frantziarrak estatu-bulegoetatik kanporatzea eta Estatuaren eta Printzearen finantzen bereizketa ere eskatu zituzten, besteak beste. Iraultzaren ondorio izan ziren, besteak beste, 1911ko Konstituzioa eta gerora ordezkapen ganbera izango zen Kontseilu Nazionalaren sorrera.

**Itun Franko Monegaskoak:** frantsesez, *Traité Franco-Monégasque*, Frantzia eta Monakoren arteko harremanaren nondik norakoak ezartzeko balio izan duten itunak dira. Hiru sinatu izan dira historian zehar:

- Lehena 1861ean sinatu zen, Monakok Frantziarengan babesa bilatu zuenean, Printzerria ez zedin Piemonte-Sardiniako Erresuman barneratu eta haren subiranotasuna bermatzeko; bestalde, XIV. mendean zehar Grimaldi leinuko kideek lortu edo konkistaturiko Menton eta Roquebrune jaurerrien lurraldeak, Frantziaren agindupera itzultzen ziren berriz ere.
- Bigarrena 1918an sinatu zen, Monakoko ondorengotza krisiaren testuinguruan, haren bidez, Frantziak Monako babestuko zuen, azken hori, lehenaren interes politiko, militar eta ekonomikoei lotzen zitzairen heinean, eta bestalde, Monakoko tronua ondorengotzarik gabe geratuko balitz, Printzerria Frantziaren protektoratu bilakatuko zen.
- Hirugarrena 2002an sinatu zen, eta bi herrialdeen arteko harreman orekatuago bat izan zuen ondorio; hasteko, tronua ondorengotza gabe geratuko balitz ere, haren independentzia aitortzen zen Frantziaren aldetik; bigarren, Monakoren subiranotasuna nazio-arteko legedian txertatzen zen; eta azkenik, Kontseilu Nazionalaren eskumenak areagotzen ziren.

**Koroaren Kontseilua:** frantsesez, *Conseil de la Couronne*, Konstituzioko VIII. Tituluak arautzen du, kasu jakin batzuetan Printzeak kontsultatu halabeharrez behar duen eragile instituzionala dela. Kasu horiek, nazio-arteko hitzarmenen onartzea, ganberaren desegitea, hiritartasun eskaeren eta grazia eta amnistia eskubideen aitortza dira. Kontseiluak zazpi kide ditu, hiru urterako hautatuak, horietatik, Presidentea eta beste hiru hautatzen ditu Printzeak. Beste kasu batzuetan ere kontsultatu dezake, nahi izanez gero.

**Liguriarrak:** diotenez, lehorreko bizitzara eta lan gogorrek burutzera ohitua zegoen herria, babesleku eta itsasora sarbide izan zuen Monakoko Haitza. Jatorriz Genova



inguruetakoak baziren ere, haitzeko lehen biztanleak izan omen ziren. Ondoren, Mediterraneo itsasoan zehar haien jabetza eta agintea hedatu izan zuten herri ezberdinak pasa ziren Monakotik, fozearrak, erromatarrak, barbaroak edota sarrazenoak bezalakoak; azken horiek kanporatzean, XI. mendean, liguriarrak itzuli zirelarik. Liguriarren jatorri genovarra kontuan hartuta, XII. eta XIII. mendeetan zehar, Erromatar-Germaniar Inperio Sainduko Enrike VI.ak Monakoren subiranotasuna Genovari eman zion. Errepublikak, haitzeko lehen gotorlekua eta etxebizitza berriak eraiki zituelarik, lurraldearen baitako agintea finkatzeko.

**Ondorengotza krisia:** Albert I.ak promulgatu zuen lege baten ondorioa da; izan ere, haren oinordekoa, Louis II.a, Albert I.aren lehen ezkontidearen semea zen, ez orduan zuenarena, gainera, Louis Alemanian hezia izan zen eta Parisetik gertu zegoen etxe batean bizi zen, ez Monakon. Ondorioz, Albert I.ak, Louisen lehen alaba Charlotte, ezkondu aurretik izan zuena ezkontidea ez zuen beste andre batekin, izendatu nahi izan zuen oinordeko, erabakiak tirabira ugari sortu zituelarik. Albert I.aren erabakia, bere aldetik, leinuarekin harreman gutxi eta Monakotik urrun bizi zen pertsona batek boterea erdiestea ekiditeko borondateak eragin zuen.

**Zenbait kontzeptu:**

- Auzitegi Gorena: *Tribunal Suprême*.
- Estatu Kontseilua: *Conseil d'État*.
- Estatu Ministroa: *Ministre d'État*.
- Gobernu Kontseilua: *Conseil de Gouvernement*.

4. atala: San Marino

**Gazteluetako Kapitainak eta Biltzarrak:** Gazteluak (italieraz, *Castelli*), San Marinoko unitate administratibo deszentralizatuak dira; bakoitzak, 6 kideko Biltzar bana du (italieraz, *Giunta*), zeinaren osaera hauteskunde bidez burutzen den, horietan, sanmarinoarrek eta herrialdean gutxienez 10 urte daramatenek bozkatu dezaketelarik; Biltzar bakoitzak presidente bat aukeratzen du, Gazteluko Kapitaina (italieraz, *Capitano di Castello*) izena hartzen duena. Honakoak dira Gazteluen eskumenak: tokian tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa; aisialdi, kultura eta gizarte ekintzak sustatzea; eta, lan publikoen proiektzio eta exekuzioa. Gazteluak, bestalde, hauteskunde barrutiak dira Kontseilu Nagusi eta Orokorrerako hauteskundeetan.

**Giuseppe Garibaldi:** politikari eta militar italiarra izan zen, *Risorgimento* (euskaraz, Berpizkunde) mugimenduaren ezinbestekoa, Italiaren Batasunaren alde aritu izan zen. Batez ere prozesu horren testuinguruan, baina beste kasu askotan ere, zenbait gudutan parte-hartu zuen militarra izan zen. Nahiz eta helburu zuen Italiaren Batasuna lortu izan, Europako zenbait potentziek jazarri zuten, zentzu horretan, Austria eta Erromako armadak inguratu zutenean, San Marinon babesa eskatu zuen, trukean, Errepublikaren subiranotasuna bermatu zuelarik. Giuseppe Mazzini, Italiako Viktor Emanuel II.a, Camillo Benso, Cavourreko Kondearekin batera, aberriaren aitatzat hartua da Italian.

**Titano mendia:** San Marinoko Errepublikako mendi altuena da, 739 metroko altuerarekin, hiriburuaren ekialdean dago, eta Apeninoen iparraldeko atea kontsideratua izatera iritsi da. Marinok, haren inguruan sortu zuen bere komunitatea, gerora, autogobernu printzipioen baitan antolatu eta errepublika izatera iritsiko zena. Zenbaitetan, Errepublikari eta haren lurraldeei erreferentzia egiteko esamolde modura baliatzen da.

**Zenbait kontzeptu:**

- Arauen Konstituzionaltasunaren Bermerako Kolegioa: italieraz, *Collegio Garante della Costituzionalità delle Norme*, oinarrizko printzipioengan ezarriko den “zuzenbide konstituzionala” nolabait aurrezartzen du.
- Estatu Kongresua: italieraz, *Congresso di Stato*, gobernua da, botere exekutiboa gauzatzen duena.
- Estatuko Barne Idazkaria: italieraz, *Segreteria di Stato per gli Affari Interni*, lehen-ministro edo gobernu-buru funtzioak betetzen dituen kargua da.
- Kapitain Erregenteak: *Capitani Reggenti*.
- Kontseilu Judiziala: *Consiglio Giudiziario*.
- San Marinoko Estatutua: *Leges Statutae Sancti Marini*.
- San Marinoko ordenamenduaren oinarrizko printzipio eta hiritarren eskubideen adierazpena: *Dichiarazione dei diritti dei cittadini e dei principi fondamentali dell'ordinamento sammarinese*.

5. atala: Andorra

**Elizbarrutiak:** katalanez, *Parròquies*, Andorrako gobernu-azpiko unitate administratiboak dira, herrigune-nukleo ugarik osatzen dituztenak eta hiriburu administratibo bat dutenak. Bestalde, elizbarruti bakoitzean, azpi-unitate administratiboak antolatzeke era ezberdinak daude. Bukatzeko, elizbarruti bakoitzean, Kontseilu Orokorrerako bina ordezkari hautatzen dira.

**Erreforma Berrirako dekretua:** katalanez, *decret de la Nova Reforma*, 1866an onartu zen, Andorrak bizi izan zituen aldaketa sozial eta politikoen ondorioz. Erreforma bultzatu zuen arrazoi nagusia, etxe xumeenen presioa izan zen, horiek ez baitzuten politikan parte hartzeko eskubiderik. Ordura arte, tributuen bilketa eta kudeaketa gauzatzen zuten etxeek soilik har zezaketen parte politikan. Erreformari esker, etxe-buru ziren gizon guztiak bozkatu zezaketen Kontseilu Orokorreko ordezkariak hautatzeko, hau da, finean, nekazari eta abeltzainek ere politikan parte hartzeko eskubidea izan zezaten ahalbidetu zuen erreformak.

**Exekutibo-legegile harremanerako beste mekanismo batzuk:** lege batek legegintza eskumena gobernuaren esku uztean, ganberak azken hori zuzentasunez gauzatu dadin egiaztatzen du. Legegintzaz gaindiko interes orokorreko zenbait gaitan, ganberak erabaki bat har dezake, ondoren, gobernuarekin akordio batera iritsi behar delarik.

**Kontseilu Orokorreko Presidente eta Presidente-Ordea:** katalanez, *Síndic* eta *Subsíndic*, hitzaren itzulpen zuzena, bozeramale edo eledun litzateke, iraganean hitzak

zuen benetako definizio katalanetik eratorria; Herrialde Katalanetan, ordea, hitz hori, oro har kargu ezberdinak izendatzeko erabiltzen da, lurralde bakoitzean esanahi bat hartzen duelarik; Andorran, ganberako presidente eta presidente-ordeak izendatzeko erabiltzen da.

**Zenbait kontzeptu:**

- Ibarretako Kontseilu Orokorra: *Consell General de les Valls*.
- Kontseilu Orokorra: *Consell General*.
- Lurralde Kontseilua: *Consell de la Terra*.

5. atala: Monako

**Kontseilu Nazionaleko batzorde ez-iraunkorrak:** ganberaren gehiengo osoak, batzorde bereziak eratu ditzake, gai espezifikoek lanketarako, edo, batzorde baten baino gehiagoren eskumena den gai baten lanketan, batzorde ezberdinen koordinaziorako. Azkenik, Azterketa Batzordea ere eratu daiteke, ganberako kide guztiak lirategelarik haren kideak; presidentziak hartzen duen edozein erabaki eztabaidagarrirekiko adierazpenak gauzatu ditzake; gainera, Aurrekontu Legearen lanketa prozesuan Gobernu Kontseiluarekin elkarlanean jarduteko ere eratzen da.

**Zenbait kontzeptu:**

- Kontseilu Nazionala: *Conseil National*.

5. atala: San Marino

**Kontseilu Nagusi eta Orokorren bestelako eskumen batzuk:**

- Hauteskunde Batzorde Iraunkorra hautatzea: legealdi osoan jardungo duen batzorde bat da, burutzen diren hauteskundeen emaitza eta hautagaien hautagarritasuna egiaztatuko duena. Kontseilurako hauteskundeak burutu ondorengo lehen bilkuran hautatu eta burutu berri diren hauteskundeen emaitza eta baldintzak, bai eta hautagaien baldintzak egiaztatzea du funtzio garrantzitsuenetako bat. Zentzu horretan, hogeita hamar eguneko epea du, emaitza horiek egiaztatu eta ofizial egiteko, bai eta hautagaiei hautetsi estatusa emateko, eta kontseilari bilaka daitezen baimentzeko.
- Hondarreko eskumenak: batzuk administrazioari loturikoak dira, adibidez, ondasunen besterentzea, hiritartasuna eman edo itzultzea; bestalde, indultuak eta amnistiak ere eman ditzake, edota legezko ezintasunak bertan behera utzi.

**Kontseilu Nagusi eta Orokorreko Batzorde Iraunkorrek eta lantzen dituzten gaiak:**

- Afera Konstituzional eta Instituzionalena: administrazio publikoari, barne-aferei, babes zibilari, Gazteluetako Biltzarrekiko harremanei, justiziari, hezkuntzari, kultura eta kultura ondareari, eta, unibertsitate eta ikerketa zientifikoari loturiko kontuez arduratzen da.
- Kanpo Harremanena: emigrazio eta inmigrazio, informazioaren segurtasunari eta ordenu publikoari loturiko kontuez arduratzen da.

- Aurrekontuaren Planifikazio eta Finantzaketarena: artisautza, industria, merkataritza, turismo, zerbitzu, garraio eta telekomunikazio, eta, lan eta kooperazio gaietara loturiko kontuez arduratzen da.
- Higiene eta Osasunaren: segurtasun eta gizarte segurantzari, gizarte-politikei, kirolari, lurraldeari, ingurumenari eta nekazaritzari loturiko kontuez arduratzen da.

**Kontseilu Nagusi eta Orokorreko Batzorde Iraunkorren bestelako funtzioak:** proiektu modura aurkeztuko den testuaren idazketan, artikulua azter ditzakete; beste batzordeei esleituriko lege proiektuen eta batzordearen lanaren inguruko iritzia eman dezakete, interpelazioen ondorio diren mozioak azter ditzakete, eta Estatu Kongresuaren kontrola gauzatzeko ere, zenbait mekanismo baliatzen dituzte.

**Zenbait kontzeptu:**

- Hamabien Kontseilua: *Consiglio dei XII*.
- Hirurogeien Kontseilua: *Consiglio dei LX*.
- Kontseilu Berezia: *Consiglio Speciale*.
- Kontseilu Nagusi eta Orokorra: *Consiglio Grande e Generale*.

6. atala: Andorra

**Legealdi etena:** 2009an hasi zen legealdia halaberrez eten behar izan zen 2011n. 2009an, hauteskundeetako lehen indar politikoa Alderdi Sozialdemokrata izan zen, eta, gehiengo osoa erdiestetik ordezkari batera gelditu bazen ere, hamalau urtez agintean egondako Alderdi Liberalaren agintea eten eta gobernua eratu zuen. Andorrako Kontseilu Orokorren ordezkari kopurua parez denez, oposizioarekin berdinduta agindu behar izan zuen Alderdi Sozialdemokratak, hartara, oso zaila izan zitzaion legegintza ekimena egikaritzea. Ildo horretan, urtez urte aurrekontuak onartzeko zailtasunek eta BEZaren legearen baitan sorturiko eztabaidek, Alderdi Sozialdemokratako Gobernu Buruak dimitiarazi zezan eragin zuten, ganbera desegin eta hauteskundeak deituz.

**Unió Laurediana:** Andorrako Kontseilu Orokorreko hauteskundeetan, Sant Julià de Lòria elizbarrutian urtez urte aurkeztu den alderdi txiki bat da, batzuetan liberalekin koalizioan bestetan bakarka aurkeztu izan da. 2011n bakarka aurkeztu eta elizbarrutiko zerrenda bozkatuena izan zen, ondoren, liberalen alderdi diziplinan txertatu bazen ere, emaitzak argitaratzean hautagaitza edo alderdi independente modura adierazi zen.

**Zenbait kontzeptu:**

- Alderdi Liberala: *Partit Liberal d'Andorra*.
- Alderdi Sozialdemokrata: *Partit Socialdemòcrata*.

6. atala: San Marino

**Bozkatzeko eta hautagaiak izendatzeko prozedura:** bozka-paperean, zerrenda ezberdinen irudiak lauki zuzen batean bilduta agertzen dira alde batetik, koalizioa eratuko dutela adierazi duten zerrenden kasuan, lauki zuzen horiek elkarren ondoan

eta gainean koalizioaren izena eta irudia dituen beste bat dutela agertzen direlarik. Bozka paperak hautagaia izendatzeko hutsune bat ere badauka, horretan, hautagaiaren izen-izen abizenak idatzi behar direlarik. 2016ra arte, hautagaiei hiruna lehenetasun boza emateko aukera zegoen, hartara, bozka-paperak hiru hutsune zituen. Baimendutakoak baino izendapen gehiago burutzen badira, horiek balioa galtzen dute, zerrendari eman zaion bozketaren balioa mantentzen bada ere.

**Hauteskunde irabazlea izendatzeko prozedura:**

1. Zerrenda eta koalizio ezberdinek erdietsitako bozka baliagarrien guztizkoa bitan zatitzen da. Koalizio ezberdinek jasotako bozka baliagarriak kontuan hartzeko, hura osatzen duten zerrendei emandako bozkek eta koalizioari bakarrik emandakoak hartzen dira kontuan.
2. Zatidura horri unitate bat eransten zaio hauteskunde koefizientea kalkulatzeko.
3. Koefiziente horrek adierazten duena baino bozka kopuru handiagoak dituzten zerrenda edo koalizioen artean bozkatuena izendatzen da garaile.
4. Sistema horren bidez garailerik izendatzeko aukerarik egon ezean, 30 ordezkari gora erdietsi dituen zerrenda edo koalizio bozkatuena izendatzen da garaile.
5. Garaile izendatu den zerrenda edo koalizioak 35 ordezkari baino gutxiago erdietsi baditu, 35 izateko falta zaion ordezkari kopurua esleituko zaio, garaileari emandako ordezkari gehigarriak, garaile izendatu ez diren zerrenda eta koalizioei kenduko zaizkie.
6. Hala ere, ez badago garaile izendatzeko baldintzak biltzen dituen hautagaitzarik, Erregentziak, hauteskunde bigarren itzulia deitzen bi igande geroagorako, horretan, bozkatuenak izan diren lehen bi zerrenda edo koalizioek parte hartzen dutelarik.
7. Bigarren itzuli horretan zerrenda bozkatuena izendatzen da garaile, baina ez da bozka kopuruaren arabera ordezkari esleitzen zerrenden artean. Zerrenda garaileari, 35era arte iristen lagunduko dioten ordezkariak ematen zaizkie, lehen itzulian ordezkari lortu duten hautagaitzei eta bigarren itzuliko galtzaileari kentzen zaizkiolarik.

**Legealdi etenak:**

- 2008an, agintean zegoen ezkerreko koalizioko alderdi ezberdinen arteko adostasuna hautsi zen, Alderdi Sozialdemokratik beste koalizio bat eratu nahi izan zuenean, alderdiko zenbait kidek alde egin zuten koalizio hori gehiengorik gabe utziz.
- 2012an, bere aldetik, Alderdi Kristau Demokrataren baitan bilduriko koalizioa hautsi, eta ondorioz deitu ziren hauteskundeetan, Alderdi Kristau Demokrata eta Sozialdemokrata koalizioan aurkeztu ziren.
- 2016an ere, ideologia ezberdinetako alderdiak biltzen zituen koalizioko alderdi txikiak, garatzen ari zen programarekiko desadostasunak tarteko, koalizioa utzi zuen, halako hartan, gainera, krisialdi ekonomikoak eta Italiak San Marinoko bankuei ezarria zien blokeoak ere eragin handia izan zuten.

**Zenbait kontzeptu:**

- Alderdi Kristau Demokrata: Partito Democratico Cristiano Sammarinese.

- Alderdi Sozialdemokrata: Partito dei Socialisti e dei Democratici di San Marino.

## ERREFERENTZIAK

---

- Anckar, D. (2002). "Homogeneity and Smallness: Dahl and Tufté Revisited". *Scandinavian Political Studies*, 22 (1), 29 – 44. [On-line], eskuragarri hemen: [https://www.researchgate.net/publication/229452924\\_Homogeneity\\_and\\_Smallness\\_Dahl\\_and\\_Tufté\\_Revisited](https://www.researchgate.net/publication/229452924_Homogeneity_and_Smallness_Dahl_and_Tufté_Revisited) [Kontsulta eguna: 2020/12/3]
- Anckar, D. (2004). "Regime choices in microstates: the cultural constraint". *Commonwealth & Comparative Politics*, 42 (2), 206 – 223. [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/1466204042000299263> [Kontsulta eguna: 2020/12/3]
- Anckar, D. (2008a). "Microstate Democracy: Majority or Consensus; Diffusion or Problem-Solving?". *Democratization*, 15 (1), 67 – 85. [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/13510340701768158> [Kontsulta eguna: 2020/12/3]
- Anckar, D. (2008b). "Microstate Democracy Revisited: Developments in Time and Space". *The Open Political Science Journal*, 1, 75 – 83. [On-line], eskuragarri hemen: [https://www.researchgate.net/publication/228868463\\_Microstate\\_Democracy\\_Revisited\\_Developments\\_in\\_Time\\_and\\_Space](https://www.researchgate.net/publication/228868463_Microstate_Democracy_Revisited_Developments_in_Time_and_Space) [Kontsulta eguna: 2020/12/3]
- AndorraInfo (2020). *Historia de Andorra*, eskuragarri hemen: <https://www.andorrainfo.com/andorra/historia-de-andorra.html> [Kontsulta eguna: 2020/12/16]
- Andorramania (2020). *Arte y cultura en Andorra, Historia de Andorra*, eskuragarri hemen: <http://www.andorramania.net/historia-de-andorra.php> [Kontsulta eguna: 2020/12/16]
- Baker, R. (1992). "Scale and Administrative Performance: The Governance of Small States and Microstates", Randall Baker (ed.) *Public Administration in Small and Island States*. West Hartford, CT: Kumarian Press. (5 – 25)
- Baldersheim, H. eta Keating, M. (ed.) (2015). *Small states in the modern world: vulnerabilities and opportunities*. Cheltenham: Edward Elgar Publishing.
- Bariéty, A. (2018). "Monaco, un régime politique unique en son genre" *Le Figaro*. Otsailaren 11. Nazioarte saila. [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.lefigaro.fr/international/2018/02/11/01003-20180211ARTFIG00011-monaco-un-regime-politique-unique-en-son-genre.php> [Kontsulta eguna: 2020/12/22]

Blais, A. eta Dobrzynska, A. (1998). "Turnout in electoral democracies". *European Journal of Political Research*, 33 (2), 239 – 262.

Castelli di San Marino (2021). *Consiglio Grande e Generale della Repubblica di San Marino*, eskuragarri hemen: <https://www.castellidisanmarino.com/consiglio-grande-e-generale-della-repubblica-di-san-marino/> [Kontsulta eguna: 2021/1/6]

Conseil National (2021). *Histoire du Conseil National*, eskuragarri hemen: <https://www.conseil-national.mc/institution/histoire-du-conseil-national/> [Kontsulta eguna: 2021/1/6]

Conseil National (2021). *La préparation du vote d'une loi de budget et le suivi de son exécution*, eskuragarri hemen: <https://www.conseil-national.mc/textes-lois/la-preparation-du-vote-dune-loi-de-budget-et-le-suivi-de-son-execution/> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Conseil National (2021). *La présentation du budget de l'État*, eskuragarri hemen: <https://www.conseil-national.mc/textes-lois/la-presentacion-du-budget-de-letat/> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Conseil National (2021). *Le système législatif*, eskuragarri hemen: <https://www.conseil-national.mc/textes-lois/le-systeme-legislatif/> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Conseil National (2021). *Les grands principes de la gestion budgétaire publique*, eskuragarri hemen: <https://www.conseil-national.mc/textes-lois/les-grands-principes-de-la-gestion-budgetaire-publique/> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Conseil National (2021). *Les règles de la comptabilité publique*, eskuragarri hemen: <https://www.conseil-national.mc/textes-lois/les-regles-de-la-comptabilite-publique/> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Conseil National (2021). *Règlement intérieur du Conseil National*. Monaco: Conseil National. [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.conseil-national.mc/wp-content/uploads/2019/10/Re%CC%80glement-inte%CC%81rieur-du-Conseil-National.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consell General (2021). 1. *En els orígens del Consell General*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/fitxers/documents/consell-en-la-historia/1-en-els-origens-del-consell-general> [Kontsulta eguna: 2021/1/6]

Consell General (2021). 2. *La Nova Reforma*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/fitxers/documents/consell-en-la-historia/2-la-nova-reforma> [Kontsulta eguna: 2021/1/6]

Consell General (2021). 3. *El segle XX*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/fitxers/documents/consell-en-la-historia/3-el-segle-xx> [Kontsulta eguna: 2021/1/6]

Consell General (2021). 7. *Com era el Consell General*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/fitxers/documents/consell-en-la-historia/7-com-era-el-consell-general> [Kontsulta eguna: 2021/1/6]

Consell General (2021). *El Consell General en la Història*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/el-consell-general-amb-la-historia> [Kontsulta eguna: 2021/1/6]

Consell General (2021). *Els òrgans del Consell General*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/organs-i-procediments-del-consell-general/els-organs-del-consell-general> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consell General (2021). *Execució pressupostaria*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/organs-i-procediments-del-consell-general/execucio-pressupostaria> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consell General (2021). *Grups parlamentaris*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/organs-i-procediments-del-consell-general/grups-parlamentaris> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consell General (2021). *Naturalesa jurídica del Reglament*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/organs-i-procediments-del-consell-general/naturalesa-juridica-del-reglament> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consell General (2021). *Procediments legislatius tipus i especials*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/organs-i-procediments-del-consell-general/procediments-legislatius-tipus-i-especials> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consell General (2021). *Reglament del Consell General*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/constitucio-i-reglament/reglament-del-consell-general> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consell General (2021). *Relacions Consell General - Govern: control i impuls de l'acció política i de Govern*, eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/ca/el-consell-dandorra/organs-i-procediments-del-consell-general/relacions-consell-general-2013-govern-control-i-impuls-de-l2019accio-politica-i-de-govern> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consiglio Grande e Generale (2021). *Commissioni Consiliari Permanenti*, eskuragarri hemen: <https://www.consigliograndeegenerale.sm/on-line/home/organismi->



[istituzionali-e-commissioni-consiliari/commissioni-consiliari-permanenti.html](https://www.consigliograndeegenerale.sm/online/home/composizione-commissioni-consiliari-permanenti.html)

[Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consiglio Grande e Generale (2021). *Composizione Consiglio Grande e Generale*, eskuragarri hemen: <https://www.consigliograndeegenerale.sm/online/home/composizione.html> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consiglio Grande e Generale (2021). *Composizione, Gruppi Consiliari*, eskuragarri hemen: <https://www.consigliograndeegenerale.sm/online/home/composizione/gruppi-consiliari.html> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consiglio Grande e Generale (2021). *L'istituzione, Funzione*, eskuragarri hemen: <https://www.consigliograndeegenerale.sm/online/home/listituzione/funzione.html> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consiglio Grande e Generale (2021). *L'istituzione, Storia*, eskuragarri hemen: <https://www.consigliograndeegenerale.sm/online/home/listituzione/storia.html> [Kontsulta eguna: 2021/1/21]

Consiglio Grande e Generale (2021). Raccolta Coordinata dei documenti in Materia Eletorale, eskuragarri hemen: <https://www.consigliograndeegenerale.sm/online/home/listituzione/normative-di-riferimento.html> [Kontsulta eguna: 2021/02/01]

Constitució del Principat d'Andorra. Butlletí Oficial del Principat d'Andorra, Andorra la Vella, 1993ko apirilaren 28a. [On-line], eskuragarri hemen: <http://www.consellgeneral.ad/fitxers/documents/constitucio> [Kontsulta eguna: 2020/12/16]

Consulat de Monaco en Bulgarie (2020). *Histoire de la Principauté*, eskuragarri hemen: [http://www.consulatdemonaco.bg/index.php?option=com\\_content&view=article&id=10&Itemid=3&lang=fr](http://www.consulatdemonaco.bg/index.php?option=com_content&view=article&id=10&Itemid=3&lang=fr) [Kontsulta eguna: 2020/12/19]

Dahl, R. eta Tuft, E. (1973). *Size and democracy*. Stanford, CA: Stanford University Press.

Diamond, L. eta Tsalik, S. (1999). "Size and Democracy: The Case For Decentralization", Larry Diamond (ed.) *Developing Democracy*. Baltimore: The Johns Hopkins University Press. (117 – 160).

Decreto n. 79; Dichiarazione dei diritti dei cittadini e dei principi fondamentali dell'ordinamento sammarinese; testo coordinato della Legge 8 luglio 1974, n.59; con le modifiche derivanti dalle Leggi 19 settembre 2000, n.95; e 26 febbraio 2002, n.36. Bolletino Ufficiale della Repubblica di San Marino, San Marino, Repubblica di San Marino, 2002ko uztailaren 8a. [On-line], eskuragarri hemen: [file:///C:/Users/Usuario/Downloads/22669leggi\\_6221.pdf](file:///C:/Users/Usuario/Downloads/22669leggi_6221.pdf) [Kontsulta eguna: 2020/12/23]

